

hh  
hik hasi

Irene Käosaar  
Reggio Emiliako Lehen Hezkuntza  
Ikasketa-zerbitzua  
Intersexualitatea  
Xakea hezkuntzan  
'Amour' ikuskizuna  
Elena Laka



Txikitik asko egin daitekeenean

ESTONIAKO HEZKUNTZA

## IRUDIMENA PIZTEN DUTEN ISTORIOAK

8-12  
urte

### ISTORIORIK GABEKO IPUIN ISTORIODUNA

Iñaki Arranz · Concetta Probanza

Liburu guztiz desberdina,  
irakurri gabe deskribatu ezin dena.



### TXOKOLATEZKOA IZAN NAHI NUKE

Alaine Agirre · Leire Salaberria

Mikeli arreba txiki bat ekarri behar  
diote gurasoek: Naia, Afrikatik datorren  
haurra, txokolatea bezain beltza.



### LEHEN HEGALDIA

Txiliku · Aritz Eiguren

Amona Blasi eta Alaitz bere bilobaren  
arteko istorio harrigarria.



# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## ESTONIAKO HEZKUNTZA

Bidaia-pedagogikoa antolatu du Hik Hasik Estoniara apirileko oporraldian, eta irakasle eta hezitzaile taldea hartuta bidaide, bertako hezkuntza-sistema ezagutu du: arrakastaren gakoak, integrazioako erronkak... Bidaian Estoniar Gobernuko Hezkuntza Ministerioko kide Irene Käosaar elkarrizketatzeko aukera izan du.

ESPERIENTZIA / 24

## LEHEN HEZKUNTZA REGGIO EMILIAN

0-6 adin tartean hain ezaguna den Reggio Emiliako lan-moldea Lehen Hezkuntzara hedatu dute, proiektu pilotu gisa, Scuola Primaria Loris Malaguzzi izeneko zentroan. 2009tik martxan da eskola berria. Zazpi urteotako esperientzia nolakoa ari den izaten azaltzeko eskolako kideak izan dira Donostian, Hik Hasik antolatutako jardunaldian.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoz.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines

Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz.

**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.

**Diseinua:** GrafIk.

**Maketazioa:** Xangorin.

**Inprimategia:** ANTZA S.A.L Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2016-04-27). Kopurua: 3.800 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Autonomia eta gertuko gestioa, ongizaterako gako

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Estonia. Txikitik asko egin daitekeenean

16 ELKARRIZKETA

IRENE KÄOSAAR

“Begirada ikasle bakoitzaren potentzialtasunetan, interesetan eta esperientzietan jarri nahi dugu”

24 ESPERIENTZIAK 1

Reggio Emiliako Lehen Hezkuntza

28 ESPERIENTZIAK 2

Ikasketa-zerbitzua

32 EKARPENAK

Intersexualitatea

36 GALDEIDAZU

JON ALVAREZ

Xakeak zer-nolako ekarpena egin dezake ikaslearen prozesuan?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

'Amour' ikuskizuna

42 ATZEKO ATETIK

Elena Laka

# Jakin<sup>•eus</sup>

herria kultura hizkuntza

60 urte euskal kultura eta  
pentsamendua aztertzen eta zabaltzen

HARTU, IREKI, IRAKURRI, ELIKATU

## Hik Hasi-ko harpidedun zarelako, eskaintza berezia duzu

Hurrengo hiru aleak **doan**  
formatu digitalean

Urteko harpidetza  
**%20 merkeago**, 48 euro

[jakinkide@jakin.eus](mailto:jakinkide@jakin.eus) helbidera idatzi edo 943 218092 telefonora deitu  
[www.jakin.eus](http://www.jakin.eus)



# Autonomia eta gertuko gestioa, ongizaterako gako

## editoriala

OSO MODU IREKIAN INTERPRETATZEN DUTE CURRICULUMA ESTONIAN NAHIZ REGGIO EMILIAN; ESTATUAK GIDALERRO OROKOR BATZUK EMATEN DITU, HORI AINTZAT HARTURIK ESKOLA BAKOITZAK PLAN PERTSONALIZATUA EGIN DEZAN.

**H**aurrak autonomian heztea. Horixe da eskola gehien xede nagusietako bat. Asko hitz egiten da umearen autonomiaz, bere kasa jarduteko gaitasunaz, norbera izatera iristeko egin beharreko bidez...

Ikasleentzat bai, autonomia aldarrikatu ohi dugu. Baina eta ikastetxeen kasuan? Zer nolako garrantzia ematen diogu zentroaren askatasunari? Zenbateraino dute eskolek modua bere kabuz aritzeko eta bakoitzak bere erabakiak hartzeko? Zertan baldintzatzen du administrazioak? Eta nola eragiten curriculumak?

Estonia eta Reggio Emilia. Bi hezkuntza-esperientzia arrakastatsuren berri ematen dugu aldizkari honetan. Hain zuzen ere, eskolen autonomia eta gertuko gestioa dira bietan hezkuntza-komunitatearen ongizaterako giltza: “Gurea ez da eredu bat, ezta esperientzia soil bat ere. Irakasleen, haurren, gurasoen eta herriko eragileen inplikazioarekin etengabe aldatzen, berritzen, moldatzen, asmatzen, sortzen... ari den dinamika bat da. Eta hori ezin da autonomiarik gabe egin”, dio Maddalena Tedeschi Reggio Emiliako pedagogoak.

Irene Käosaar Estoniako Hezkuntza eta Ikerketa Ministerioko Hezkuntza Depar-

tamenduko burua, berriz, hala mintzo da Estoniak lortzen dituen emaitza onez galdetuta: “Gure hezkuntza-sistemaren arrakastarako gako nagusia da estoniar hezkuntza-sistema deszentralizatua dela, inklusiboa eta parte-hartzailea”.

Eskola publikoak dira nagusi Reggio Emilian nahiz Estonian, baina autonomia handia dute kudeaketarako, bai metodologiari bai talde osaerari dagokionez. Administrazioak finantzatzen ditu zentroak, matrikulatutako ikasle bakoitzeko diru kopuru bat emanaz, baina handik aurrerako guztia eskola-komunitatearen esku dago: pedagogia-mota, metodologia, familien parte-hartzea, espazioaren antolaketa, harremanen diseinua, profesionalen kontratazioa, hezitzaileen prestakuntza...

Eta denetan garrantzitsuena: horren guztiaren sostengu den curriculumua ulertzeko duten modua. Izan ere, oso era irekian eta pertsonalean interpretatzen dute curriculumua. Reggio Emiliako nahiz Estoniako eskoletako kideek adierazi bezala, estatuak gidalerro orokor batzuk ematen ditu, hori aintzat harturik eskola bakoitzak bere plan pertsonalizatua egin dezan: “Esan daiteke curriculumua eskolaren estilo orokor bat dela, zerbait dinamikoa eta eskola komunitate osoak parte hartzen duen prozesu baten bitartez garatzen dena”.



“Juxtu alderantzikoa behar luke administrazioaren planteamenduak: baldintza soziolinguistiko okerragoak ditu ikastetxeak? Ba ikastetxe horretan indarrak jarriko ditugu, euskara mailan gainerakoekin pareko lorpen adierazleak bermatu ahal izateko... ala legeak jasotzen du matematiketako emaitzak baxuagoak izan daitezkeela Ezkerraldean, ingurune sozioekonomikoa okerragoa dutelako?” Aitor Idigoras



## PAI-REKIN KEXU DA NAFARROAKO HEZKUNTZA-KOMUNITATEA

Hutsune handiak agertu dira PAI Ingeleseztik ikasteko Programaren bigarren ebaluazioan. Hezkuntza komunitatean egin du ebaluazioa Nafarroako Gobernuak: eskoletako zuzendaritzen, irakasleen eta familien iritzia jaso du, eta teknikariekin ere hitz egin du. Kexu gehienak irakasleen heziketarekin, koordinazioarekin eta aniztasunari erantzuteko neurriekin lotuta daude. Euskarari buruzko kezka ere nabari da ebaluazioan: murgiltze ereduari diren ikasleentzat kalterako izaten ari ote den, euskara gaitasuna txikitzea ekarri ote duen PAIk. Hala ere, jarraitzearen aldekoak dira gehienak: % 88k adierazi dute hori.

## IRUÑEKO HAUR-ESKOLEN EUSKARAZKO ESKAINTZA EZ DA ESKARIA ADINAKOA

Iruñeko Udalak haur-eskoletako euskarazko lekuak handituko ditu datorren ikasturtean: egun bi zentrotan dute haurrek euskaraz ikasteko aukera, eta beste bitan jarriko dute. 2016-17ko ikasturteko 0-3 adin tarterako aurrematrikulazioa egin duten familien % 37,7k euskarazko eredu baten alde egin dute. Euskarazko ereduaren eskaintza, ordea, oraingoaren bikoitza bada ere, % 27koa da. Beraz, ez dio eskariari erantzungo, oraingoz.

## Kaskarotenea ofizialki ireki dute Ziburun

Urtebeteko gatazkaren ostean, normaltasunez hasi zuten ikasturtea joan den irailean Kaskarotenea ikastolan. Baina udan obrak izan zituztenez eta irailean tarrapataka ibili zirenez, apirilaren 9an egin zuten inaugurazio ofiziala, bi helburu nagusirekin: batetik, laguntza eman dietenei eskerrak ematea; bestetik herrian direla ikusaraztea. Paxkal Indo Seaskako lehendakaria eta Koldo Tellitu Ikastolen Elkartekoa ez ezik, gonbidatuen artean izan ziren Sylviane Allaux diputatu sozialista eta Guy Poulou Ziburuko auzapeza ere.



## Arnegi eta Luzaideko ikasleek elkarrekin ikasiko dute heldu den irailetik aitzina

Muga administratiboak banatzen ditu Arnegi eta Luzaide. Baxe Nafarroako parte da lehena; bigarrena, berriz, Nafarroa Garaia barnean dago. Elkarrengandik, ordea, hurbilago daude bakoitza parte den herrialdeko hurrengo herritik baino. Bata Frantziaren eta bertzea Espainiaren mende egonagatik ere, harremana atxiki dute bi herriek betidanik.

Alde bateko zein berteko hezkuntza-sistemek banandu egiten zituzten bi udalerririk orain arte. Baina heldu den irailetik aitzina, bi herrietako eskoletako ikasleek elkarrekin ikasiko dute. Nafarroako Gobernuak eta Pirinio Atlantikoko Departamendua ari dira proiektua garatzen, elkarlanean.

Luzaideko eta Arnegiko eskolak ez dituzte fisikoki bateratuko, ordea. Izan ere, bi herrietan atxikiko dute eskola, eta ikasleak arituko dira joan-etorrian. Txandaka egingen dute: Arnegiko haur-eskolako ikasleak Luzaidera joanen dira goizetan, eta euskaraz ikasiko dute bertan, Luzaideko Haur Hezkuntzakoekin batera. Arratsaldetan Luzaideko Lehen Hezkuntzako ikasleak joanen dira Arnegira, eta frantsesezko eskolak izanen dituzte han, Arnegiko lehen mailakoekin. Euskaraz, frantssez eta gaztelaniaz ikasiko dute denek, beraz.

# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

## LOMCE-REN AZTERKETAK ETETEKO BIDEA HASI DA MADRILEN

PPk Espainiako Kongresuan gehien-  
goa galdu duela-eta, LOMCE hezkun-  
tza erreforma baliogabetzeko pausoa  
eman dute gainontzeko alderdi gehie-  
nek bat eginda: amaierako azterketak  
eteteke lege proposamen bati eman  
diote bide. Edozein kasutan, errefor-  
maren aplikazioa ziurtatzeko, eta fi-  
nean, legea etetea zailtzeko, neurrien  
egutegia legean bertan sartu zuen  
PPk. Hortaz, aldaketak parlamentuko  
ibilbide osoa gainditu beharko du.

## D EREDUAN IZENA EMAN DUTEN FAMILIEI ESKERTZA EGIN DIE EUSKALGINTZAK

Tafallan, Caparrosen eta Lodosan  
D eredu a lerro publikoan zabal-  
tzea lortu dela ospatzeko eta euren  
seme-alabak euskarazko hezkuntzan  
matrikulatu dituzten familiei eskerrak  
emateko *Besarkatu* ekimena egin zu-  
ten apirilaren 23an Tafallan, Sortzen  
elkarateak antolatuta.



## Komunikatzeko gaitasuna izango da lehentasuna euskara azterketetan



EGAr eta beste proba batzuei buruzko ebaluazioa egin du Eusko Jaurlaritzak eta aldaketak iragarri ditu: euskara egiaztatzeko azterketen ardatza "komunikagaitasuna" izango da, "zuzentasun gramatikalaren" gaineratik. Hala, zuzentasunaren eta komunikagaitasunaren pisuak "birneurritzea" proposatu du Jaurlaritzak, bigarrenak garrantzia irabazteko.

Udazkenean EGA euskararen gaitasun agiriak sortutako zalapartaren ondotik —aurkezten direnetatik lautik batek lortzen du titulua—, Eusko Legebiltzarrak gobernuari eskatu zion aztertzeke tituluen egoera. Apirilaren erdian aurkeztu zuten ebaluazio-txostena.

Gaur egungo egituran, hiru proba ditu EGA lortzeko bideak: atariko, idatzizkoa eta ahozkoa. Jendea bidean geratuz joaten da: lautik batek ez du atariko gaitasun; pasatzen direnetatik erdiek ez dute idatzia igarotzen; ahozkoa iristen direnetatik % 93k gaitasun dute. Kate bat da EGA: proba guztiak gaitasun behar dira. Hori malgutzea proposatu dute orain: den-denak derrigor igaro beharrik izan gabe, "konpentsazio sistema bat" jartzea. Alegia: irakurmene edo entzumene gutxigatik gaitasun ez dutenek aukera izatea puntu horiek mintzamenean edo idazmenean lortzeko. EGAREN kasuan, gaur egun ezin da mintzameneko proba egin idatzizkoa gaitasun gabe; proposamena da idatzia gutxigatik gaitasun ez dutenek ahozkoa joan ahal izatea, eta hango puntuazioarekin orekatu ahal izatea idatzian falta zaiena. "Ahozkotasunari eta komunikagaitasunari behar duten garrantzia ematea" da helburua.



## HIK HASI-K BIZKAIRAKO DITUEN EGITASMOAK AURKEZTU DITUZTE BILBOKO AZKUE FUNDAZIOAN



Bizkaia Hik Hasi elkarteak sortu dela aitzakiaz harturik, apirilaren 28an, Hik Hasik Bizkairako dituen egitasmoak aurkeztu zituen elkarteak Bilboko Azkue Fundazioan. Ekain amaieran Leioako irakasle eskolan egingo diren Udako Topaketen berri emateaz gain, datorren ikasturterako aurreikusita dauden jardunaldiak eta saioak azaldu zituzten Hik Hasiko kideek eta bertaratu ziren hezkuntzako profesionalak egindako proposamenak jaso zituzten. Bizkaian Hik Hasi egitasmoaren inguruko interesa duena [bizkaia@hikhasi.eus](mailto:bizkaia@hikhasi.eus) helbidearen bidez jar daiteke arduradunekin harremanetan.

## BASO-PEDAGOGIARI BURUZKO TAILERRA EGINGO DUTE MAIATZAREN 7AN ETA 8AN DONOSTIAKO ULIAN

Naturarekin kontaktua izateak pertsonaren zein ingurumenaren ongizaterako duen garrantziaz jabetzeko eta haurrek naturarekiko duten lotura hori nola gara daitekeen ikasteko baso-pedagogiari buruzko tailerra egingo da maiatzaren 7an eta 8an Donostiako Uliako Interpretazio Zentroan. *Naturan gartzan den Haur Hezkuntza ereduak: eskenatoki soil bat baino askoz gehiago* izenburupean, Katia Huesok emango du tailerra. 12 ordu teoriko-praktikoko iraupena du saioak eta 95 euroko prezioa. Informazio gehiagorako edo erreserba egiteko [bihotzinguru@gmail.com](mailto:bihotzinguru@gmail.com) helbidera idatzi behar da, edota 661656753 telefono zenbakira deitu.

## IKASGELETAN SOZIOLINGUISTIKA EDUKIAK EMANGO DITU UEMAK

Euskararen arnagune diren udal-herrietako hizkuntza ezagutza eta erabilera maila jaitsi dela ikusita, hezkuntza programa bat jarri du martxan Uema Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak. Soziolinguiстика edukiak ikasgeletan txertatzeko helburuarekin diseinatu dute programa; Xabi Aizpuruak gidatuta. Irailean hasi zuten esperimentazio fasea, Alegiako, Azpeitiko, Orioko, Zarauzko eta Zumaiako (Gipuzkoa) ikastetxeetan. Programa 400 ikaslerekin landu eta emaitzak baloratu ondoren, 2016-2017 ikasturtean Uema osatzen duten 73 herrietan martxan jartzea espero dute.

## SORTZEN-EN 25. URTEURRENA OSATUKO DA MAIATZAREN 22AN

2016. urtean Sortzen elkarteak 25 urte betetzen dituela eta, *EskolHarrria, biharko herria* lelopean jarduera andana burutu du ikasturtean zehar. Ospakizunen azken txanpan sartuta, urteurrenari amaiera emateko, maiatzaren 22an aldarrikapen festa egingo du Hernanin, elkartearen sorbururan. 1991. urtean jaio zenetik, urte asko daramatza Sortzen-ek euskal eskola publiko berri baten alde lanean; herri-tarra, parte-hartzailea eta aurreratua izango den eskola baten alde, hain justu.



# HIZPIDE IZANGO DA

## 50 IKASTARO BAINO GEHIAGO IZANGO DIRA HIK HASI-REN UDAKO TOPAKETETAN; IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK DA



Maiatzaren 31 arte zabalik dago Hik Hasi-ren Udako Topaketetan izena emateko epea. Orotara, 53 ikastaro eskainiko dira, ekainaren 28an, 29an eta 30ean Leioan (EHUren Irakasle Eskolan) eta uztailaren 4ean, 5ean eta 6an Donostian (EHUren Pedagogia Fakultatean). Ikastaroak 9:00etatik 14:00etara bitartean emango dira. Arratsaldean, berriz, tailerrak eta saio irekiak izango dira.

Era askotako ikastaroak antolatu dituzte Hik Hasik eta EHUK elkarlanean topaketa hauetarako, ahalik eta interes eta behar gehienak asetzeko asmoz. Gauzak horrela, pedagogia berritzaileekin, emozioen kudeaketarekin, bullyingarekin, artearekin, musikarekin edota komunikazioarekin loturiko ikastaroak daude, batzuk teorikoak eta praktikoagoak besteak.

Informazio osoa, aldizkari honekin batera banatutako liburuxkan eta [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunean eskura daiteke. Izen ematea ere webgunetik egin behar da. Edozein zalantza izanez gero berriz, idatzi [hikhasi@hikhasi.eus](mailto:hikhasi@hikhasi.eus) helbidera edota deitu 943 371408 telefono zenbakira.

## TRANSEXUALITATEA EUSKARAZ LANTZEKO MATERIAL DIDAKTIKOA ESKURAGARRI DAGO

Eskoletan transexualitatea lantzeko material falta sumatuta ekin zion lanari Chrysallis Euskal Herria elkarteak, Aingeru Mayor sexologoaren laguntzarekin. Elkartearen Facebook orrialdean dago materiala eskuragarri: sei fitxa dira Mattin Martiarenaren marrazkiekin. Edonola ere, ikastetxeetan frogatu eta haur eta irakasleen iruzkin eta ekapenak jaso ondoren material hori osatzea da elkartearen asmoa.

## HERRI HEZITZAILEETAKO PRAKTIKA ONAK ERAKUSTEKO JARDUNALDIA MAIATZAREN 21EAN

OinHerrik antolatuta, maiatzaren 21ean herri hezitzaileen jardunaldia egingo da Zestoako Herri Ikastetxean. Herrietan hurrekin eta nerabeekin egiten ari diren hainbat praktika hezitzaile eta parte-hartzaile aurkeztuko dira, haien gainean gogoeta egin eta aurrera begira nola saretu aztertzeke.

Saioa 9etan hasiko da ongi-etorriarekin. 9:15ean Lorea Agirrek sarrerako hitzaldia egingo du *Oin-Herriren oin-harriak* izenburupean. Ondoren, 9:45etik 11:30 arte herrietako praktika onak aurkeztuko dira. 11:30etik 12:00etara atsedena egingo da, hamaiketakoarekin. 12:00etan, berriz, lan-taldeak egingo dira 13:00 arte bakoitzaren beharrak zeintzuk diren azaltzeko eta behar horiei nola erantzun hausnartzeko. Amaitzeko, bateratze-lana egingo da eta 14:00etan jardunaldiari amaiera emango zaio. Gero, bazkaria egingo da. Horretarako, baina, izena emate-rakoan esan behar da.

Izena emateko epea irekita dago maiatzaren 15era arte, [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunean. Prezio arrunta 20 eurokoa da. *Hik Hasi*, *Hazi Hezi* edota *Irria* aldizkarietako harpidedunek; Herri Hezitzailea lantzen ari diren herrietako lagunek nahiz OinHerri osatzen duten elkarteetako kideek 10 euro ordaindu beharko dute. Zaintza zerbitzua ere izango da eta bazkaria 20 euro kostatuko da.



Herrialde txikia, hizkuntza gutxitua, atez ate bizilagun herrialde erraldoi bat eta hizkuntza indartsua dituen. Euskal Herriaz esan genezake hori bera, baina Estoniaz ari gara. Okupazioz josiriko historia izan du itsaso Baltikoak ukituriko herrialde eskandinaviar honek, duela 25 urte independentzia aldarrikatu zuten arte. Herri gazte gisa, nortasun eta estatu propioa eraikitzeko lanean ari dira harrezkero. Eta, horretarako giltzarrietako bat hezkuntza izan behar dela erabaki dute: oraindik orain populazioaren % 30a errusiarra da 1,5 milioiko biztanleriaren artean, eta hezkuntza bilakatzen ari da estoniar kultura eta hizkuntza normalizatzeko baliabide nagusienetako bat. Badirudi egindako lanak fruituak eman dituela, eskola-porrot txikienetarikoa eta emaitza onenetarikoak dituen herrialdea baita.

# GAI A:

# ESTONIA

## Txikitik asko egin daitekeenean

**B**esteak behatuta ikasi, besteek egiten dutenetik baliagarri zaiguna ikusi, eta geure egin. Ikaskuntza-prozesuaren urratsetako bat izan daiteke, halaxe ikasten dute espezie gehienek ere, giza-espezieak barne: behatuz eta imitatuz, beti ere bakoitzak berea sortzeko ondoren. Bada, heziketaren oinarritzko prozesu hori bere egin du Hik Hasik ere, besteak beste 20 urte baino gehiagoko ibilbide honetan antolatu izan dituen bidaia pedagogikoen bidez. Finlandia, Italia edo Kuba bisitatu izan ditu, beti ere esperientzia Hik Hasirekin partekatu nahi izan duten irakasle eta hezitzaileak hartuta bidaide. 2016ko apirilko oporraldian Estoniari iritsi zaio txanda: bertako hezkuntza-sistema ezagutzea xede duen bidaia antolatu du. 20 laguneko taldea elkartu da bidaia-pedagogiko horretan.

Baina, zergatik Estonia? Zer du berezitik? Bada, batetik, Euskal Herriarentzat erreferentzia izan daitekeelako, hainbat antzeko ezaugarri baititu. Batetik, hizkuntza gutxitua da bertako hizkuntza, estoniera alegia; euskararekin batera, jatorri indoeuroparra ez duen hizkuntza bakanetarikoa da Europan. Hizkuntza gutxitu horrek hizkuntza eta herrialde erraldoi bat du bizilagun, atez ate: Errusia, eta errusiera. Hain zuzen, honen itzalpean egon da urte luzez, euskara gaztelerarenean edo frantsesarenean egon den bezalatsu. Baina, eta horretan datza Euskal Herriarekiko izan dezakeen desberdintasun nagusienetariko batek, Moskuren gerizpetik ateratzea lortu du Estoniak: 1991n Sobietar Batasuna desegin zenetik herrialde independentea da.

Bigarrenik, bidaia-pedagogikoa Estoniara egitea erabaki du Hik Hasik hezkuntzari garrantzia handia ematen dion

herrialdea delako: estoniar gizartearen ardatzetako bat da hezkuntza. Emaitzak ere onak dira, 2garrena baita Estonia PISA azterketaren sailkapenean, Finlandiaren atzetik, eta eskola-porrot txikienetarikoa duen herrialdea da. Gainera, hezkuntza giltzarria izan da independentzia eta gero estoniar hizkuntzaren normalizazioa sustatzeko.

Okupazioz josiriko gora-beherek osatzen dute Estoniaren historia. Finlandiarren, suediarren, germaniarren, errusiarren... mende egon izan da. XX. mendean, ordea, bi aldiz egokitu zaio bere independentzia aldarrikatzea. Lehenengoz, 1918an, Errusian Nicolas tsarrak boterea galdu eta gobernu boltxebikea osatzean. Paradoxikoki, boltxebikeek osaturiko Sobietar Batasunaren mende egon zen, ordea, XX. mendean erdialdetik aurrera: Bigarren Mundu Gerran historian beste behin okupatu zuten alemaniarrek Estonia, oraingo honetan Reich naziak, eta honen aurka borrokan ari zen Stalinen Sobietar Batasunak hartu zuen berriro ere Estoniaren kontrola gerraren amaieran. Hala egon zen 1991n Sobietar Batasuna desegin eta mende berean 2garren aldiz independentzia aldarrikatu zuen arte.

Errusiaren nahiz sobietarren mende egoniko urte luzeen ondare, 2 hiztun- eta kultur-komunitate bizi dira gaur egun Estonian; izan ere, errusiar hiztunak biztanleriaren %30 inguru dira, eta beraien hizkuntzari eta kulturari eusten diote Estoniaren baitan. 35-40 urtetik goragoko estoniar gehientzat beraien bigarren hizkuntza da errusiera. Belaunaldi gazteek, ordea, independentzia lortu ondoren hazitakoek, ez dute errusiera ezagutzen eta erabiltzen; hala ere, elebidunak dira txikitatik, ingelesak hartu baitio lekukoa errusiera-

ri bigarren hizkuntza edo atzerriko lehen hizkuntza gisa. Nagusiki bi komunitate horiek osatzen dute 1,3 milioiko biztanleria. Herri txikia da Estonia, bertako biztanleek behin eta berriz errepikatu izan duten bezala bidaian zehar. Baina, txikitetasunetik asko egiteko gai izan da hezkuntza-alorrean, batik bat independentzia aldarrikatu ondorengo urteetan.

Okupazio istorio luzeek nagusiki bi ezaugarri utzi dituzte estoniar herriaren azalean grabaturik. Batetik, hizkuntza handiagoen itzalean egon den hizkuntza gutxituak ahozko tradizioa baliatu du bizirauteko, horrelaxe gorde dute mende mende euren kulturaren eta tradizioaren zati handi bat; horregatik, “kantatzen duen herria” deitzen diote Estoniari, beraienzat ahozkotetasunak duen inportantziaren isla. Bestetik, askatasunari garrantzia handia ematen dion herrialdea da, norbanakoaren nahiz taldearen libertateari. Orain, herri gazte gisa etorkizunari begira jarriarik, hezkuntzaren bidez saiatu dira, hain zuzen, beraien kulturari eta hizkuntzari gizaratean dagokion toki normalizatua ematen, beti ere askatasun izpiritua hori oinarri harturik.

## Nolako da estoniar hezkuntza-sistema?

7 urterekin hasten da derrigorrezko hezkuntza Estonian. Adin hori arte, gurasoek aukera dute euren seme-alabak etxean hezteko edo haur eskolara eramateko. Etxean heztea erabakitzen badute, familien ardura da haurrak derrigorrezko hezkuntza hasteko behar dituen gaitasunak garatzea. Bestalde, urte eta erdira has daitezke haur eskolan; ordu arte familian egon ohi dira, eta horretarako estatuaren aldetik laguntzak jasotzen dituzte familiek. Gurasoetako batek aukera du haurra jaio baino zertxobait lehenagotik hasi eta honek 1,5 urte bete arte etxean gelditzeko umearen zaintzan; baimenak irau bitartean, lanean zegoeneko soldata bera jasoko du, estatuak ordainduta, eta ordu arte betetako lanpostua gordeko diote lanera itzultzen denerako.

7 urtetik aurrera, 9 ikasturtez oinarrizko eta derrigorrezko hezkuntza hasiko du haurrak, 16 urte bete arte. Oinarrizko heziketa hori bi sasoitan banatzen dute: bata, 7-13 urte artekoa, Lehen Hezkuntza deitzen dutena; eta bigarrena 13-16 urte artekoa, Behe Bigarren Hezkuntza deitzen dutena. 16 urterekin aldiz, Goi Bigarren Hezkuntza, *gymnasium* deitzen dutena hasteko aukera izango dute, 19 urte arte; edo, bestela, bokazio-eskola deitzen dutenera joan daitezke, lanbide heziketaren pareko litzatekeenera.

Estonian eskola publikoa da nagusi. Tallin hiriburuan, esaterako, 79 eskoletatik (derrigorrezko hezkuntzaren eremuan)

14 dira eskola pribatuak. Gainerako 65 eskolak publikoak dira (horietatik 25 errusiar eskolak), eta tokiko administrazioaren mende daude; udaletxearen esku, alegia. Haur Eskolen kasuan, erabat: Udal Haur Eskolak dira. Udalak ikasle kopuruaren arabera finantziatzea ematen dio haur eskolari, eta ondoren eskolak berak kudeatzen du diru hori: hortik ordaindu behar dituzte irakasleen soldatak, eskola-materiala, mantenu-lanak... Beraz, udal bakoitzaren egoera ekonomikoak eragina izango du eskolaren diru-sarreretan. Dena dela, horrez gain, haur eskolako gurasoek ere kuota bat ordaindu ohi dute, eskolari finantzatzeko laguntzeko; besteak beste, ikasleen jatorduak ordaintzeko erabiltzen da diru-sarrera hori. Kuota hori ordaintzeko arazoak dituzten familiek Estoniako Gobernuaren laguntza jasotzen dute.

Hortik aurrerako eskoletan, hau da, derrigorrezko hezkuntzan, bigarren hezkuntzan, lanbide heziketan edo unibertsitate-mailan, Estoniar Gobernuak Hezkuntza Sailaren ardura da eskolen finantzaketa, neurri batean behintzat. Gobernuak ikasle kopuruaren arabera diru-laguntza ematen dio eskola bakoitzari, honako zereginetarako: ehuneko bat irakasleen soldatak ordaintzeko, beste bat ikasleen jatorduak ordaintzeko, eta hirugarren bat eskola-materialerako. Hortik aurrerako gastuetarako, hala nola, azpiegituren mantenu-lanetarako, udalak diruz laguntzen du eskola bakoitza.

## Askatasuna, hezkuntzaren ezaugarri

Finantzaketaz harago, eskolek autonomia handia dute kudeaketarako, bai metodologiari bai taldearen osakerari dagokionez. Dena dela, Udal Hezkuntza Batzordeak gainbegiratzen du horien kudeaketa. Tallin hiriburuko Pirita haur eskolako ikasketa buruak, Helina Aaboja-k azaldutakoaren arabera, “udal batzorde hori hezkuntza-alorreko adituek osatzen dute, profesional independenteek”. Dena dela, administrazioaren esku egon arren herrialdeko eskola gehienak, “hezkuntza politika gaitatik kanpo dago Estonian. Ia ezinezkoa litzateke Gobernu aldaketa batek eragina izatea hezkuntza-sisteman. Estonian hezkuntzak garrantzia handia dauka eta alor horretan zerbait aldatu behar izanez gero ezin du pertsona edo alderdi jakin batek bakarrik egin. Guztien arteko akordio zabal bat behar da aldaketak egiteko”.

Eskolen autonomia horren parte da, besteak beste, irakasleen kontratazioa. Eskola bakoitzak erabakitzen du zer profesional mota behar dituen, eta zein izango den postu hori betetzeko aukeraturiko pertsona. Zehazki, Aabojak azaldu bezala, eskola barneko komisio bat arduratzen da irakasleen edo bestelako langileen kontratazioaz. Komisio



horretan, zuzendariak eta ikasketa-buruak, bi irakaslek eta gurasoen ordezkarri batek hartzen dute parte. Haur eskoletan zuzendaria da alor ekonomikoaren kudeaketaz arduratzen dena, nagusiki, baita azpiegituraren eta mantenu-lanen kudeaketaz ere. Aldiz, ikasketa-buruaren esku gelditzen da pedagogiarekin eta hezkuntza-prozesuarekin loturiko lana. Zuzendaria, aldiz, udal hezkuntza batzordeak aukeratzen du, eta bi urtetik behin ebaluatzen dute bere lana, baita eskolak bere kudeaketa pean izan duen bilakaera ere. Bi urteko aldi horietan, ordea, askatasun osoa du bere lana egiteko.

Irakasleek beren lanean duten askatasun bera, hain zuzen. Eskolen lana estatu-mailako curriculumean oinarritzen da; baina, hortik abiatuta, eskola bakoitzak bere plangintza osatzen du. Horretan, ikasleek adin bakoitzeko lortu behar dituzten gaitasunak zehazten dituzte. Hortik aurrera, irakasle bakoitzak askatasun osoa du helburu horietara iristeko zer metodologia erabiliko duen aukeratzeko. Aabojaren esanetan, beraien haur eskolan "irakasleek erabakitzen dute zer, nola eta noiz egin. Ez dute goizean hau edo beste egin beharrik, edo arratsaldeon hori edo hura. Ikasleak nola dauden, zertarako dauden ikusi, eta gauza bat edo beste landu erabakitzen dute. Horrela askoz emankorragoa eta sortzailerago da ikaskuntza-irakaskuntza prozesua, bai ikasleentzat bai irakasleentzat". Irakasle bakoitzak eguneroko batean jasotzen du egun horretan zer egin duen eta nola, eta baloratu egiten du egun horretako lana. Horretaz gain, eguneroko horretan planifikatzen ditu aste horretarako aurreikusten dituen lanak. Bere burua antolatzen du, alegia, baita bere jarduna ebaluatu ere, autonomiaz. "Irakasle bakoitza bakarra

## Bi hizkuntza, bi komunitate

**Errusiar komunitate handia bizi da Estonian: biztanleriaren ia % 30a errusiarra da. Horiek beren hizkuntza eta kultura mantendu dute, eta, komunitate zentzu horri erantzunez, errusiar eskoletara bidaltzen dituzte gehienek euren seme-alabak. Gutxi gorabehera, errusiar familietako haurren % 20 inguru errusiar eskoletara joaten da. Eskola horiek Estoniako hezkuntza-plangintzen eta curriculumen arabera egiten dute lan, desberdintasun batekin: haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan errusiarra da nagusi eskola horietan. Ikastetxe horietako zenbaitetan, estoniera ikasgai bat besterik ez da; baina behin Behe Bigarren Hezkuntzatik aurrera, legez ikasgaien % 60 estonieraz irakastera behartuta daude. Beste errusiar eskola batzuek ehuneko horretan irakasten dute lehen mailetatik; murgiltze-eredua deitzen dutena litzateke. Bigarren Hezkuntzatik aurrera aldiz, hau da, 16 urtetik aurrera, estonieraz bakarrik irakasten da, baita unibertsitatean ere.**

Bi komunitateak, herrialde bakarra osatu arren, bi dira, bi errealitate bereizi. Bakoitzak bere kultura eta bere hizkuntza du, bere ohiturak, bere bizimodua, herrialde bakarra partekatu arren. Ordea, hezkuntza tresna baliagarria izaten ari da bi komunitateak elkarrengana gerturatzeko; esaterako, ohikoak dira eskola errusiarren eta eskola estoniarren arteko ikasle trukeak. Horrela, belaunaldi gazteek aukera dute beren herriaren parte den beste kultura ezagutzeko, eta zubiak eraikitzeko; bi izatetik bat izatera pasatzeko.

## GAIA: ESTONIA

Txikitik asko egin daitekeenean



da eta bere estiloa du. Ez diegu esaten nola egin behar duten beren lana, askatasuna dute nahi duten metodoa erabiltzeko. Eskatzen dugun bakarra da derrigorrezko hezkuntza hasteko behar dituzten gaitasunak garatzea ikasleek”. Gauzak horrela, metodologia aldetik aniztasuna da nagusi Piritan. Zenbaitetan proiektuka egiten dute lan, edo gai zehatz bati erantzunez... Herriko eragileekin elkarlanean ere aritzen dira, eta, hala, zaborraren inguruko proiektu bat landu dute natur-taldearekin batera.

### Jolasa ere ikasketaren parte

Bidaia pedagogikoko partaideek Estonian bisitaturiko beste eskoletako bat Tallina izan da. Derrigorrezko hezkuntza eta Goi Bigarren Hezkuntza eskaintzen ditu, Tallin hiriburuan bertan. 900 ikasle eta 74 irakasleko zentroa da, eta ospea du hizkuntzen irakaskuntzan eginiko ekarpenagatik. Derrigorrezko hezkuntzan zehar, ingelesa ikasten dute ikasleek (C maila lortzen dute 16 urterekin bukatzean), eta baita alemaniera edo errusiera ere (B maila lortzen dute). Bigarren hezkuntzan atzerriko hirugarren hizkuntza bat ikasi behar dute: espainiera, frantsesa, finlandiera, errusiera, japoniera... eskaintzen diete aukeratzeko. Izan ere, Tallina eskolako zuzendariaren esanetan, “ikasitako hizkuntza bakoitze-

ko segurtasun-uhala bat gehitzen diogu gure buruari”.

Bidaia-pedagogikoko partaideek bai Tallina eskolako bai Pirita haur eskolako ikasgeletan egoteko aukera izan dute, eskola-orduetan, eskolaren martxa eta irakasleen-lana eza-gutzeko, eta ikusi ahal izan dute jolasa elementu inportantea dela estoniar eskolen metodologian. Esaterako, Tallina eskolan hizkuntzak irakasteko prozesuaren parte da jolasa, teknologiarekin batera; ez diote alferrik deitzen Estonia-ri e-herrialdea. Hala, ingeleseko klasean Socrate System doako aplikazioa erabiltzen dute, eta ikasle bakoitza bere smartphone-a erabilita konektatzen da jolasteko. Pirita haur eskolan ere, jolas librean ikusi genituen haurrak ikasgelan, eta bereziki mugimendua lantzeko gelara egindako bisitan. Irakasleak antzerkia, dantza, musika eta bestelako adierazpi-deak baliatu zituen haurrak mugimenduan jartzeko, jolasteko eta emozioak askatzeko. Bestalde, tarte zabala hartu zuten ikasleek eskolaren kanpoan jolasteko ere; zuhaitzez, hondarrez eta bestelako material naturalez osaturiko patioan, modu libre eta askean.

### Eskolen antolamendua

Hik Hasirekin eginiko elkarrizketan (ikus aldizkari honen

16. orrialdea) Irene Käosaar Estoniako Gobernuoko Hezkuntza Ministerioko ordezkariak azaldu zigun zeintzuk ziren 2015ean onarturiko hezkuntza-plangintzaren helburu nagusiak. Horren arabera ari dira lanean bai Tallina eskolan bai Pirita haur eskolan: "Gobernuak gidalero batzuk zehazten ditu, nolabait derrigorrezko eskolara iristen direnerako haurrek zer gaitasun izan behar dituzten azalduz; pertsonalak, sozialak, edo jolasarekin eta ikasketa-prozesuarekin loturiko trebeziak", dio Aaboja-k.

Bestalde, Gobernuak ezartzen du hezkuntzaren etapa bakoitzeko ikasgela bakoitzean izan beharreko ikasle kopurua: 1,5-3 urteko geletan, 14-16 ume egon daitezke; 4-7 urte bitartean, 20-24 ume; eta, derrigorrezko hezkuntzan, berriz, 24 ikasle egon daitezke ikasgela bakoitzean. Dena dela, Tallina eskolan ikusi bezala, zenbait ikasgaitarako bitan banatzen dute ikasgela; adibidez, hizkuntzak irakasteko. Modu horretan, irakaskuntza-prozesuaren eraginkortasuna areagotu nahi dute. Helburu berarekin, Tallina eskolan 7 asteetan behin ikasgaiak aldatu egiten dituzte, eta 7 asteeko sasoi bakoitzean gehienez 7 ikasgai dituzte ikasleek; adibidez, ikasturte honetako lehen 7 asteetan, geografia ikasgaia izan zuten ikasleek, baina ez hurrengo 7 asteetan, eta orain gutxi berriro itzuli da ikasleen ikasgai sortara. Modu horretan, "ikasgai bakoitza modu trinkoagoan lantzen da eta hobeto ikasten dute", Tallinako zuzendariaren esanetan. Ikasgai bakoitzeko ikasgela bat dute, eta, beraz, ikasleak etengabe aldatzen dira gelaz; horrek dinamikotasuna ematen duela uste dute; ikasgai bakoitzak 50 minutuko iraupena du.

Eta lehen minututik azken minutura arte aprobetxatzen dituzte 50 minutu horiek. Izan ere, eskoletan ez ezik familietan ere garrantzia handia ematen zaio heziketari, eta deigarria da haurrek geletan erakusten duten patxada eta diziplina. Modu horretan, lanerako giro aproposa sortzen da lehen minututik, eta klaseak askotarako ematen du. Deigarria da, era berean, ariketa labur asko egiten dituztela, dinamismo handia emanez ikasgaiari. Eta, estoniar askatasun izpiritu horren isla da ikasgelan haurrek duten portaera ere; edozein momentutan altxatzen dira euren mahaietatik irakaslearengana hurbildu eta galdera bat egiteko, edo komunera joateko, lasaitasunez, gelako lan-giroa hautsi gabe.

## Dena ez dago curriculumean

Bidaian bisitaturiko eskoletan gogotsu eta harrotasunez azaldu izan dute eskola-arduradunek eskola bakoitzaren curriculumaz kanpoko eskaintza ere. Kirolari garrantzia handia ematen diote, baina baita estoniar tradizioak eta

festak ospatzeko antolatzen dituzten ekitaldiei ere; estoniar hizkuntzaren eguna, esaterako. Ekitaldi horietan, gainera, familiek ere hartzen dute parte, eta eskolarekin zubiak eraikitzeke baliabide dira. Bestalde, dantzarekin eta musikaren loturiko ekintzek ere garrantzia handia dute eskoletan; hainbestearinokoa, non zenbaitetan curriculumaren parte ere badiren. Esaterako, Tallinan eskola-orduetan derrigorrezko ikasgai bezala dantza eskolak jasotzen dituzte ikasleek. Izan ere, zuzendariaren esanetan, "dantza modu egokia da komunikatzeko, harremantzeko. Dantzaren eta mugimenduen bidez ikasleak emozionalki eta fisikoki garatzen dira". Musikarekin lotuta, hainbat musika-instrumentu erakusten dute eskoletan, horien artean estoniar tresna tradizionalak, eta abesbatzak dituzte; ospe handikoak dira eskolarteko abesbatza-lehiaketak eta musika-jaialdiak.

Deigarria da, era berean, haurren osasunari ematen dioten garrantzia. Eskola bakoitzak bere medikua du, egunero-egunero bertan dagoena, eta haurrak artatzen dituzte edozein gaixotasunen aurrean, edo egunerokoan sor daitezkeen zauri edo ezbehar txikien aurrean. Osasunaren parte den heinean, elikadurak ere garrantzia handia hartzen du. Hezkuntza-maila guztietan, otordu bat behintzat eskoletan egiten dute haurrek, bazkaria bederen. Hori normalean eskolan bertan prestatzen dute. Haur eskoletan, bazkaldu ez ezik, gosaldue ere eskolan bertan egiten dute haurrek. Iritsi, kaleko zapatak etxeko zapatilekin ordezkatu, eta gosaltzera esertzen dira; horregatik, haur eskoletako gelak espazio askoren batura dira: gelaren erdigunean dago sukaldea, ontziak garbitzeko makina eta guzti; beste gela batean, berriz, haurrentzako oheak daude, bazkaldu ondorengo lo-kuluxka egin dezaten. Komuna ere gelaren parte da, baita kanpora ateratzerakoan nahiz sartzerakoan arropak eta zapatak aldatzeko erabiltzen dute gelatxoak ere. Behar guztiak eremu bakarrean dituzte, eskura.

## Txikian handi

Askatasuna, zentroen autonomia edo hezkuntza gizartearen erdigunean eta politikatik at kokatzea... izan daitezke estoniar hezkuntza-sistemaren arrakastaren gakoetako batzuk, baina ezin aipatu gabe utzi beste giltzarri bat: irakasleen motibazioa eta baliabide gutxiarekin asko egiteko borondate irmoa: "Non dagoen arrakasten gakoak? Kontua da irakasleok oso inplikaturik gaudela, bai geure buruari bai gure ikasleei ahalik eta onena ematea exijitzen diogula. Gainera, irakasleok asko partekatzen ditugu bizipenak geure artean, eta diru gutxiarekin asko egiten saiatzen gara", azaldu du Aaboja-k.



“Gure helburu nagusia da hezkuntzaren inguruko ikuspegia aldatzea, begirada ikasle bakoitzaren potentzialtasunean, interesetan eta esperientzietan jartzea”



# GAIKO

# ELKARRIZKETA:

# IRENE

# KÄOSAAR

---

Estoniako Hezkuntza eta Ikerketa Ministerioko  
Hezkuntza Departamentu Orokorreko burua.

Hik Hasik antolatuta irakasle-  
taldeak Estoniara egindako bidai-  
pedagogikoan, Estoniako Hezkuntza  
Ministerioarekin bilera egiteko aukera  
izan dute, Tallin hiriburuan. Herrialde  
horretako hezkuntza-sistemaren  
helburuak eta erronkak azaldu ditu  
honek. Sobietar Batasunaren altzoan  
Hezkuntzaren inguruan garaturiko  
ikuspegi akademizista atzean utzi,

eta pertsonetan, ikasle bakoitzean  
zentraturiko ikuspegia garatu nahi dute  
hezkuntzan herrialde independente  
gisa. 5 urteko plangintza orokorra  
garatu dute horretarako, lehen aldiz  
hezkuntza-etapa guztiak hartuko  
dituena kontuan, haur eskoletatik hasi  
eta unibertsitateraino. Errusiar hiztun  
diren ikasleak integratzea izango dute,  
berriz, erronka nagusienetariko bat.

**Zein dira Estoniako Gobernuaren asmo eta erronka nagusiak hezkuntzaren alorrean une hauetan?**

2015. urtetik plangintza oso ona daukagu, nire ustez, gure hezkuntza-sistemarako: Estoniako Bizitza Osoan Zeharreko Hezkuntza Estrategia. 5 urteko iraupena izango du, eta, lehen aldiz, plangintza hori hezkuntza-etapa guztietarako izango da. Izan ere, aurrez, etapa bakoitzak bere plangintza propioa zuen: haur eskolek berea, beste bat hezkuntza orokorrak, bestea unibertsitateak... Orain, plangintza bakarrari esker, hezkuntza-sistema osoaren argazki orokorra egin dezakegu.

Estrategia horrek 5 helburu nagusi ditu; edo, hobeki esan, helburu nagusi bakarra du, eta gainerako 4 xedeak horren zerbitzura daude. Helburu nagusi hori da hezkuntzaren, ikasketa- eta irakaskuntza-prozesuaren inguruko ikuspegia aldatzea. Zer esan nahi dugu horrekin? Begirada norbanakoan, ikasle bakoitzean jarri nahi dugula: hezkuntza oinarritu

behar da indibidualtasunean, bakoitzaren interesetan, esperientzietan eta potentzialtasunean. Sobietar Batasunaren parte izan ginen orain dela 25 urte arte, eta hezkuntza-sistemaren inguruko ikuspegi oso desberdina genuen orduan: hezkuntza gaitasun akademikoetan oinarritzen zen, erabat. Beraz, gure irakaskuntza- eta ikasketa-prozesuak aldatzeko erronkari heldu behar izan diogu orain: irekiagoak izatea; umeetan, ume bakoitzean interesa jartzea; inklusi-boagoak izateko asmoak txertatzea gure hezkuntza-estrategietan...

Plan estrategikoaren bidez, beraz, metodologia aldatu nahi dugu hezkuntza-maila guztietan. Eta baita irakasleen ikuspegia ere, irakasleek hezkuntzaren helburuak ulertzeko duten modua, hain zuzen ere. Alegia, jabetzea garrantzitsuena ez dela ikasleek Pitagoras-en Teorema ikastea, baizik eta gizartera irekita dauden pertsonak heztea, besteekin komunikatzen eta elkarlanean lan egiten jakingo dutenak, pentsamendu

kritikoa izango dutenak eta informazioa aztertzeko gai izango direnak.

**Gabeziak somatzen al dituzue eremu horietan zuen ikasleen artean?**

Gure hezkuntza-sistemaren arazo nagusia honakoa da: ikasleak oso azkarrak dira, akademikoki jakintza handia dute, baina ez dakite hori bizitza errealean, egunerokoan erabiltzen, ez dagoelako loturarik gaitasun akademikoaren eta bizitza errealearen artean. Hori da gure arduraren nagusienetakoa bat.

Eta, nola egingo dugu aldaketa hori hezkuntza-sisteman? Bada, plangintzako gainerako lau helburuen bidez. Noski, lehenengo eta behin irakasle eta eskola-zuzendari kompetenteak eta motibatua behar ditugu. Eta, horretarako, formazioa gakoa izango da. Bigarrenik, harreman estuagoa sortu behar dugu hezkuntza-sistemaren eta lan-merkatuaren artean.

Hirugarrena, iraultza digitalarekin lotua dago. Gu *eHerrialde* bat gara, IKTak gizartearen parte dira Esto-



nian, eta oso harro gaude horretaz. Baina errealitate horretara hurbiltzeko aldatu egin behar dugu hezkuntza-sistema; adibidez, testu-liburuak eta irakaskuntza-materiala eguneratu behar ditugu.

Laugarrenik, hezkuntzan aukeraberdintasuna eta ikasketa-prozesuan parte-hartzea sustatu behar dugu. Horrek esan nahi du heziketa inklusiboa egin behar dugula, bestelako hizkuntza eta kulturak ere aintzat hartuko dituenak, besteak beste.

### **Estoniak oso emaitza onak lortzen ditu PISA azterketetan. Zein dira arrakastaren gakoak?**

Hainbat arrazoi daude tarteko. Batetik, estoniar hezkuntza-sistema deszentralizatua da, inklusiboa eta oinarri sakonak ditu. Metodo eta teknika parte-hartzaileak gero eta gehiago erabiltzen dira, modu horretan lidergoa eta aitzindaritzak garatzeko eskolan bertan nahiz erakundeen artean.

Gainera, sistema-politikoak sorturiko araudiek boteretu egiten dituzte eskolak. Hala, beraien curriculum propioa garatu dezakete eta beraien kabuz erabaki zein den ikasleak hezteko modurik onena, beti ere nazio mailako curriculumaren markoan.

Horrekin batera, irakasleen etengabeko formazio profesionalean indarra jarri dugu, eta horri esker eskoletako zuzendarien lidergoa ere garatu da. Bestetik, ikaskuntza-prozesuaren emaitzak ebaluatzeko kanpo-azterketak egin ditugu eta *feedback* guneak sortu ditugu. Horrek bidea eman digu irakasleen prestakuntza hobetzeko, goi-mailako trebakuntza profesionala eskainiz.

Azkenik, gure arraskataren beste gakoetako bat dira arazo sozialak dituzten eta hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei zuzenduriko laguntza-sistemak: ikasteko aukera malguak dituzte, laguntza-sozialak, gelaz kanpoko orientazio pedagogiko osagarria jaso dezakete (irakasle-bereziak, pedagogo sozialak, psikologoak...), barnetegi-eskoletan egoteko laguntzak jasotzen dituzten arazo-sozialak dituztenak...

### **Eskola porrotaren ratioa oso baxua**

#### **da Estonian.**

Bai, eta harro gaude horretaz. Ratioa 0,2koa da Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, oso baxua beste herrialde batzuekin alderatuta. Curriculum nazionalean zehaztuta dago zer egin dugun eta zer egiten ari garen horren inguruan, baina zer egin beharko genukeen hori hobetzeko ere.

#### **Errusiar eskoletan, nola bermatzen duzue estoniar hizkuntzaren ezagutza eta erabilera, eta errusiar komunitatearen integrazioa estoniar gizartean?**

Oro har, bi eskola mota ditugu Estonian: estoniar hizkuntza erabiltzen duten eskolak eta errusiar hizkuntza erabiltzen dutenak. Ikasleen %20 gutxi gorabehera errusiar eskoletara joaten dira. Horrek esan nahi du 5etik 1ek errusieraz ikasten duela. Baina eskola guztiek curriculum bera jarraitzen dute, diferentzia bakarra hizkuntza da.

Bestetik, estrategiak ditugu estoniar hizkuntzaren ezagutza eta erabilera bermatzeko. Estoniar hizkuntza irakastea derrigorrezkoa da, haur eskoletan 5 urteko haurrekin hasi eta Lehen Hezkuntzan ere jarraitzen dute estonieraz irakasten. Bigarren Hezkuntzan aldiz, 16 urtetik aurrera alegia, derrigorrezkoa da estonieraz irakastea.

Alde horretatik, arazoak ditugu. Izan ere, errusiar ikasleen herenak ez du estonieraz maila egokia lortzen Lehen Hezkuntza bukatzean, arazoak dituzte estonieraz komunikatzeko. Ondorioz, arazoak izango dituzte Bigarren Hezkuntzan, ikasketa guztiak estonieraz egin behar baitituzte. Egoera horri aurre egiteko lanean ari gara, besteak beste irakasleak prestatuz, edo irakaskuntza-material berria sortuz.

Horrez gain, Estoniako Gobernuak diru-laguntzak ematen ditu errusiar eta estoniar eskolen artean ikasle-trukeak egiteko. Eskualde batzuetan, batik bat Errusiarekin mugan daudenetan, estoniar populazioa oso baxua da zenbait herritan, %3 ingurukoa, eta apenas erabiltzen den estoniera kalean edo bizitza publikoan. Zonalde horietan hainbat ekimen antola-

"Gure hezkuntza-sistemaren arazo nagusia honakoa da: ikasleek akademikoki jakintza handia dute, baina ez dakite hori egunerokoan erabiltzen, ez dagoelako loturarik gaitasun akademikoaren eta bizitza errealaren artean"

"Estoniar hezkuntza-sistemaren arrakastaren gakoak hainbat dira, besteak beste sistema deszentralizatua, inklusiboa eta oinarri sakonekoa dela. Horrekin batera, irakasleen formazio profesionalean indarra jarri dugu"



tzen dugu estoniera eta integrazioa bultzatzeko. Aldiz, hegoaldea oso estoniarra da, eta irlatan ere estoniera bakarrik erabiltzen da. Bada, eskualde horietako eta Errusiarekin mugan dauden eskualdeetako ikasleen arteko trukeak antolatzen ditugu, adibidez. Hartutako neurriak arrakasta izaten ari dira hein batean, baina bidea egin behar dugu oraindik.

#### **Hezkuntza bitarteko eraginkorra al da bi komunitateak integratzeko?**

Integrazioa gure arazo nagusienetarikoa da. Errusiar eta estoniar eskolak oso segregatuta daude; bakoitzak

bere mundua du, eta eskola bakoitza oso lotuta dago bere komunitatearekin. Errusiarrak gehiengoa diren zonaldeetan errusiar komunikabideak dira nagusi, eta horrek ere eragina du, aldatu egiten baitu biztanleen mentalitatea eta gure gizarteko gai nagusien inguruan duten ikuspegia. Gai batzuen inguruan eztabaida dago bi komunitateen artean, gai politikoa da.

Egia da integratzeko oso baliagarria dela errusiar ikasleak estoniar eskoletan egotea. Baina niretzat berebiziko garrantzia dute errusiar eskoletan martxan jartzen ari garen

Hizkuntza Murgiltze Programek. Hain zuzen, programa horien zentroko zuzendaria izan nintzen duela 8 urte arte, eta niretzat gakoa dira. Gaur egun, hiru aukera ditugu errusiar gurasoentzako: %100 errusieraz irakasten duten eskolak dituzte, zeinetan estoniera ikasgai bat den; hizkuntza-murgiltze programak dituzten eskolak; edo estoniar eskolak.

#### **Errusiar biztanleak populazioaren %35 dira, baina errusiar eskoletan ikasten duten umeen ehunekoa baxuagoa da, %20 ingurukoa. Zergatik diferentzia hori? Errusiar familiek beraien seme-alabak eskola estoniarretan heztea erabakitzen dute? Bilakaerarik egon al da joera horretan?**

Inportantea da argitzea errusiar hiltunen gutxiengoa egiaz oso multikulturala dela. Errusiar hizkuntza *lingua franca* bat da sobietar garaian emigratu zuten biztanleentzat. Sobietar Batasunaren gainbehera eta gero, ukrainiar, armeniar, georgiar, azerbaijanier edo errusiar etnietako gero eta pertsona gehiagok onartzen dute estoniera *lingua franca* bezala.

Beraz, gutxiengo etniko horien artean gero eta gehiago dira estoniera hezkuntzarako hizkuntza gisa erabiltzen duten eskolak aukeratzeko dituzten familiak. Dena dela, joera hori ez da hazten ari, batez ere hezkuntzarako hizkuntza gisa errusiera erabiltzen duten 35 eskolak Hizkuntza Murgiltze Programa aukeratu dutenetik.

#### **Demagun herri batean Lehen Hezkuntzako eskola bat sortzeko beharra dagoela. Prozesu hori nola eramaten da aurrera hastapenetik?**

Bigarren Hezkuntzako zentroa balitzateke, estatu-erabakia izango litzateke. Aldiz Lehen Hezkuntzako zentro bat balitzateke, tokiko gobernaren erabakia litzateke, edo pribatua, eskola-pribatuak ere bai baitaude, nahiz eta asko ez diren; ikasleen %2-3ak ikasten du eskola pribatuetan. Dena dela, beharra ikusiz gero gurasoek eska diezaiokete Udala Gobernuari eskola bat sortzeko. Hala ere, Estonian horrelakorik ez da askotan gertatzen, eskola gehiegi

baititugu leku bakoitzean.

Izan ere, zoritxarrez, azken 15 urteetan gure ikasleen kopurua % 40 jaitsi da, baina eskola kopuru bera daukagu. Eta guretzat erronka da hori kudeatzea. Eskola-sarea osatzeko programa sortu dugu, eta Lehen Hezkuntzako zentroak eta Bigarren Hezkuntzako zentroak bereizteko lanean ari gara. Izan ere, Sobietar Batasunaren garaian eskola ba-tzuetan maila guztiak ematen ziren, baina gure tradizioa desberdina da eta lan egiten ari gara banaketa hori gertatzeko. Horrela, oinarrizko hezkuntza, alegia, haur eskolak eta derrigorrezko hezkuntza, tokiko gobernuen esku-mena lirateke eta Bigarren Hezkuntza, berriz, Estoniako Gobernuaren esku legoke.

### **Zeri erantzuten dio ikasle kopuruaren jaitsiera bortitz horrek?**

Arrazoi nagusia da gure populazioak behera egin duela. 1,3 milioiko populazioa dugu, herrialde oso txikia da Estonia. Aurreikusten dugu 2012-2040 artean Estoniako populazioa %10 jaitsiko dela, herrialdea osorik hartuta kontuan, eta zenbait eskualdetan populazioaren jaitsiera %25 ingurukoa izango da. Bi eskualde bakarrik haziko dira populazioan, gure aurreikuspenen arabera: Tallin eta Tartu hiriak hartzen dituzten bi eskualdeak, hain zuzen.

Familia bakoitzean 1,2koa da batez besteko haur kopurua. Arazo demografikoa da gaur egun estatu arazo nagusienetariko bat, eta horrek, era berean, arazoak sortzen ditu eskolak antolatzerakoan: populazio jaitsiera handia duten zonaldeetan haurrak mugitu egin beharko dira eskolaratzeko.

Gaur egun zorionez populazioaren beheranzko joera leundu egin da, baina arazoak ditugu 1990 erdialdean jaio zen belaunaldiarekin. 1991n lortu zuen Estoniak berriz ere herrialde independente izatea, eta oso aro emozionala izan zen, familiek ume asko izan zituzten. Baina 90 hamarraldia- ren erdian aldatu egin zen joera hori. Izan ere, jendeak 2-3 urteko epean aldaketa handiak espero zituen gizar-tean. Eta noski, aldaketa ez zen hain bizkor gertatu, nahiz eta egiaz gizar-

tea azkar aldatu den erlatiboki: 25 urte dira independentzia berreskuratu genuenetik eta herrialde erabat desberdina gara orain. Baina jendearentzat aldaketa ez zen nahikoa azkarra izan, eta 90ko erdialdean jaiotze-tasa asko jaitsi zen. XXI. mendeko lehen hamarraldian ere mantendu egin zen tendentzia hori.

### **Estonian bisitatu ditugun ikastetxeetan irakasleek inbertsio falta aipatu dute arazo nagusi gisa.**

Dirua beti da arazoa. Gure hezkuntza-sistemaren finantziarioari dagokionez, estatuak ordaintzen ditu irakasleen soldatak, irakaskuntza-materiala eta ikasleen bazkariak; izan ere, ikasleentzat jatordua doakoa da eskolan.

Noski, gure arazo nagusienetarikoa irakasleen soldatak dira; estatu mailako lehentasunetarikoa bat da irakasleen soldatak igotzea, eta bide horretan goaz: orain 5 urte arte soldatak oso baxuak ziren, azken 5 urteetan gora egin dute. Gure helburua da 2020 urterako estatuko langileen soldaten batez bestekoa baino %20 handiagoa izatea irakasleen soldata.

Tokiko administrazioen egitekoa da eskolen azpiegiturak ordaintzea; eskola-materiala izan ezik, gainerako gastua udal administrazioen ardura da. Baina tokiko gobernuen egoera asko aldatzen da herri batetik bestera, eta, beraz, eskolen egoera ere oso desberdina izan daiteke. Eskola ba-tzuetan ikus dezakegu beharrak aseta dituztela: ordenagailuak dituzte, jostailuak, kirol materiala... Baina beste eskola batzuetan ez dute halakorik, tokiko gobernua ez duelako dirurik. Hori orekatzea da gure helburua.

### **Eskolek ikasle kopuruaren araberako finantziarioa lortzen dute. Zehaztuta al dago ikasle bakoitzeko eskolak jasotzen duen diru kopurua?**

Urtero zehazten dugu eskolak ikasle bakoitzeko jasoko duena. Aurten adibidez, eskolak ikasle bakoitzeko 1.157 € jasotzen ditu irakasleen soldatetarako, 92 € eskolako arduradunen soldatetarako, 12 € irakasleen eta eskolako arduradunen garapen profesionalerako, 136,5 € jatorduetarako, eta 19,7 € inbertsioetarako.

“Egia da integraziorako oso baliagarria dela errusiar ikasleak estoniar eskoletan egotea, baina niretzat berebiziko garrantzia dute errusiar eskoletan martxan jartzen ari garen Hizkuntza Murgiltze Programek”

“Arazo demografikoa da gaur egun estatu arazo nagusienetariko bat, eta horrek, era berean, arazoak sortzen ditu eskolak antolatzerakoan: populazio jaitsiera handia duten zonaldeetan haurrak mugitu egin behar dute eskolaratzeko”

**Hasieran aipaturiko hezkuntza plangintza orokorraren helburu nagusien artean aipatu duzu irakasleek hezkuntzaz duten ikuspegia aldatzea, eta gakoa dela irakasle kompetente eta motibatua izatea. Hain garrantzitsu diren heinean, zer neurri dituzue irakasleen egoera hobetzeko?**

Alor horretan, lehenetsun nagusia irakasleen formazioa da. Guretzat oso inportantea da irakasle gazteak lortzea. Baditugu programa batzuk horretara bideratuta, adibidez *Young teacher to school* (Irakasle gazteak eskolara) izenekoak. Heziketa pedagogikorik ez duen baina irakaskuntzara hurbildu nahi duten profesional formatuei zuzendua dago. Ikasketamaila altua izan dezakete gai zehaztean, jakintza tekniko aberatsa, baina ez dute prestakuntzarik irakaskuntza edo pedagogia gaitan. Estatuak ordaintzen die formazio hori eta ondoren bi urtez eskola batean lanean egon behar dute. Dena dela, 10 urte daramatza programa horrek martxan eta badakigu gutxi gorabehera %60k derrigorrezko bi urte horiek baino gehiago pasatzen dituela hezkuntzan lanean. Honekin irakasle-gaztegabeziari erantzun nahi diogu.

Izan ere, gure irakasleen batez besteko adina 48 urte baino gehiagokoa da; eta hori arazo bat da bi arrazoigatik. Alde batetik, 48 urte baino gehiagoko irakasle batek formazioa jaso zuen garaian, hezkuntzaren eta horren helburuen inguruko ikuspegi jakin bat jaso zuela. Baina, esan bezala, gure plangintza estrategikoan jaso dugun helburu nagusia da hezkuntzaren inguruko ikuspegia aldatzea. Beraz, ez da hain erraza gure helburuak garatzea adin horretako irakasleekin, beraientzat aldaketa ez baita hain erraza. Bigarrenik, irakasleen adina arazoa da 10-20 urte barru gure irakasle gehienek erretiroa hartua izango dutelako, ez dagoelako belaunaldi aldaketarik.

**Eta, formazioaren alorrean, zer eskaintzen diezue?**

Irakasleen formazioarekin lotuta, orain dela 3 urte hainbat aldaketa egin genituen. Ordu arte ikastetxe bakoitzak bere plangintza propioa zuen, eta bakoitzak erabakitzen zuen

irakasleek trebakuntza arloan zer behar zituzten. Baina orain dela 3 urte finantzaketa modu hori aldatu egin genuen eta zentralizatu egin genuen erabakimena. Unibertsitateekin eta trebakuntza-erakundeekin lanean ari gara trebakuntza behar eta aukera nagusiak detektatzeko; ondoren, halako aukera sorta bat eskaintzen dugu, eta ikastetxe bakoitzak hortik aukeratu behar du zein trebakuntza eskaini bere irakasleei. Izan ere, egin genituen ikerketek erakutsi ziguten sarri eskolek ez zituztela aukera egokiak egiten formazioari zegokionez; agian ez zeuden prestatuak beraien ikuspegia aldatzeko, eta oso trebakuntza-aukera akademizistak egiten zituzten. Beraz, beraien trebakuntza-aukerak ez ziren egokienak gure hezkuntza-helburuak betetzeko, guk beste norabide bat eman nahi baitiogu irakaskuntzari, eta bestelako formazioa behar dute irakasleek horretarako. Noski, ikastetxeek autonomia gehiago nahi dute alor guztietan, baina erabaki politikoa da hau.

Bestalde, aholkularitza eta eskola inklusiborako formazioa eskaintzen diegu eskola guztiei. Gure irakasle guztiek behar dute jakin nola egin behar duten lan behar bereziak dituzten ikasleekin, edo nola egin lan beste kultura batekoak diren ikasleekin. Beste alde batetik, eskolek eska dezakete behar jakin baterako dirua, adibidez, eskola-giroa nola antolatu jakiteko, gurasoekin elkarlana nola egin jakiteko... eskola bakoitzaren behar zehazterako, alegia. Hezkuntza Ministerioak horiek guztiak hartu eta erabakitzen du zeini lagundu eta zeini ez, zer den lehenetsunezkoa eta zer ez.

**Arrakastarako gakoen artean behar bereziak dituzten ikasleek jasotzen dituzten laguntzak aipatu dituzu. Nolakoa da horien heziketa? Zentro bereziak daude? Curriculum egokitu dago beraientzat?**

Europar Batasuneko kideek hezkuntza inklusiboaren inguruan adostutakoan oinarritzen gara. Oro har, behar berezidun haurrak tokiko ikastetxe arruntetan eskolaratzen dira eta horietan bertan eskaintzen zaizkie behar dituzten baldintza bereziak.

Dena dela, beharrezkoa bada aukerak ematen zaizkie espezializaturiko aparteko ikastetxe edo ikasgela batean eskolaratzeko; gurasoek aukeratu beharko dute eskola orokor horretan edo aparteko ikastetxe berezian eskolaratu euren haurra.

Estoniako Hezkuntza Informazio Sistemaren arabera, ikasleen % 16,8ak nolabaiteko behar bereziak ditu. Horietatik gehienak, % 76a, eskola arrunt bateko ikasgela arrunt batean ari dira ikasten, eta, kasurik gehinetan, ikasle horiek ikasteko ezintasunak edo buru- nahiz portaera desordenak dituzte, aldi baterakoak edo iraunkorrak; gutxiengo batek ezgaitasun edo elbarritasunen bat du. Behar bereziak dituzten ikasleen % 9 ari dira ikasten eskola arruntetan dauden aparteko ikasgela berezietan, eta % 15 aparteko eskola berezietan.

Beraz, ikasle kopuru orokorrarekiko, % 4a da aparteko ikasgeletan edo aparteko eskola berezietan hezkuntza berezia jasotzen duten ikasleen portzentaia; gutxi gorabehera 6.000 ikasle dira guztira. Beraz, oraindik ere eskola berezituak ditugu, bai, nahiz eta espero dugun eskola arrunta izatea hezkuntza inklusiborako tresna nagusia.

Legez, estatuko gobernuak honako egoeretan ziurtatu beharko luke eskola eta ikasgela bereziak sortzea: ikusmen arazoak dituzten ikasleentzako; entzumen eta mintzaera arazoak dituzten ikasleentzako; ezintasun fisikoez gain, hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleentzako; ezintasun anitzak dituzten ikasleentzako; ezintasun intelektuala dituztenentzako; desordena emozionalak eta portaerazkoak dituzten ikasleentzako; eta portaera arazoekin lotuta tratamendu berezia behar duten ikasleentzako.

Bestalde, nazio mailako hiru curriculum ditugu: oinarritzko hezkuntzarako; ezintasun intelektualak dituzten ikasleentzako; eta goi bigarren hezkuntzarako curriculum nazionala. Gainera, posible da ikasketa-aldia luzatzea behar bereziak dituzten ikasleentzako, eta oso ohikoa da eskola arruntetan dauden behar berezidun ikasleek neurri eginiko hezkuntza-plan propioa izatea.

HAZIERA ETA HEZIKETA ALDIZKARIA 15. ZENBAKIA. 5 €

# Hazi Hezi

5 € • 2016ko URTARRILA • EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARI

**hh**  
hik hasi

Elkarrizketa: Katty Homar  
Zubiletako eskola  
Bizibusa  
Hirukide ikastetxea  
Galdeidazu: etxekolanak  
Txantxariak telebista saioa  
Itziar Ituño

204



**hik hasi**  
hezkuntzari garrantzia  
ematen diogunon  
komunitatea

**hh**  
hik hasi

Bolondres proiektua  
Zientzia-hezkuntza  
Ikastolak 2050  
Aberaste txokoa  
Nerabeekiko harremana  
Gipuzkoako parketxe sarea  
Iraia Elias

16. ZENBAKIA. 5 €  
**Hazi Hezi**



“Gure herri nortasunaren eraikuntzan funtzio erreferentziala betetzen du mitologiak”



GAIA: Elikadura

[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)

# ESPERIENTZIAK 1

REGGIO EMILIA

## Eskola-komunitatearen identitatea uneoro definitzen

0-6 adin tartean hain ezaguna den Reggio Emiliako lan-moldea Lehen Hezkuntzara hedatu dute, proiektu pilotu gisa, Scuola Primaria Loris Malaguzzi izeneko zentroan. Orain dela 50 urte baino gehiago jaio eta arrakastaz garatu den Reggio Emiliako heziketa-bideak jarraipena izango du hala ikasleek 11 urte betetzen dituzten arte, Haur Hezkuntzan ez ezik, goragoko adinetan ere Loris Malaguzziren filosofia oinarri duen praktika ezarri baita. 2009ko otsailetik martxan da eskola berria. Zazpi urteotako esperientzia nolakoa ari den izaten azaltzeko Maddalena Tedeschi pedagogo eta Rosa Buonanno LHko hezitzailea izan dira Donostian, Hik Hasik antolatutako jardunaldietan.



Rosa Buonanno eta Maddalena Tedeschi.

**E**z da eredu bat, ezta esperientzia soil bat ere. Etengabe aldatzen, berritzen, moldatzen, asmatzen, sortzen... ari den dinamika ireki bat da Scuola Primaria Loris Malaguzzi zentrokoa. Horregatik egunez egun ikasten ari den komunitateaz hitz egiten dute Reggio Emilian. Irakasleak, ikasleak, gurasoak eta herritarrak elkarrekin eraikiz doazen prozesu-hezitzaile batez, hain zuzen: “Hau prozesu iraunkor bat da, gure eskola-komunitatearen identitatea uneoro definitzen ari baikara”. Maddalena Tedeschi Scuola Primaria Loris Malaguzzi zentroko pedagogoaren hitzak dira. Reggio Emiliako filosofian oinarri-

tutako Lehen Hezkuntza nolakoa den ezagutzeko Hik Hasik antolatuta apirilaren 16an Donostiako EHU n egin zen jardunaldian izan zen Rosa Buonanno LHko hezitzailearekin batera. Hain zuzen ere, lan egiteko moduagatik nahiz hezkuntzaren gainean duten ikuspegiagatik berritzaile eta eredugarri izan daitezkeen Lehen Hezkuntzako hainbat ikastetxeren esperientzia ezagutarazten dihardu Hik Hasik 2015-2016 ikasturtean. Joan den azaroan Kataluniako El Martinet ikastetxearen proiektua, eta otsailean Amara Berri sistema ezagutu ostean, Reggio Emiliako aurkezpenarekin amaitu da ikasturte honetako egitasmoa.





### **Curriculum: jarraibidea bai, interpretazio hertsirik ez**

Curriculum izan ohi da eskola gehientsuenetako bizkarrezurra, eta antzera gertatzen da Scuola Primaria Loris Malaguzzi zentroan ere. Reggio Emiliako Lehen Hezkuntza nolakoa den ulertzeko, ordea, funtsezkoa da curriculumaz egiten duten irakurketa aintzat hartzea: “Esan daiteke curriculum eskolaren estilo orokor bat dela, zerbait dinamikoa eta eskola komunitate osoak parte hartzen duen prozesu baten bitartez garatzen dena”, argitzen du Tedeschik. Gainera, curriculumaz baino gehiago, jarraibide nazionalen hitz egiten dute gaur egun Reggio Emilian, bertako kideen aburuz, gidalerro orokor batzuk ematen baititu estatuak, gero hortik abiatuta eskola bakoitzak curriculumaren plan pertsonalizatua egin dezan. “Zerbait irekia da, beraz, curriculum; izan ere, bertan definitzen diren jarraibideak era askotara interpreta daitezke, alegia, askotariko formak har ditzakete gidalerro horiek”.

Scuola Primaria Loris Malaguzzi zentroko curriculum eraikitzen hezitzaileek ez ezik, gurasoek, umeek nahiz hiriko eragileek ere parte hartu dute. Guztiak baitaude “eskolaren izaera pentsatzeko prozesuan inplikaturik”. Ikastetxearen nortasuna eraikiz joateko bide horretan hiru atal landu dituzte:

1. Helduak nolako papera jokatu behar duen eskolaren inguruko marko epistemologikoa osatzeko.
2. Nolako harremana eraikitzen den norbanakoaren eta taldearen artean, hezitzaileen eta ikasleen artean, helduen eta haurren artean... beti ere, prozesu autonomo eta subjektiboak komunitate-izanarekin uztartuz.
3. Nola egin dokumentazio-lana eskolako jarduna behatuz, interpretatuz eta dokumentuak sortuz. Kontuan izanik, heziketa-prozesuaren arrastoak jasoz egindako dokumentazio horrek taldearen pentsamendua eraldatuz joateko balioko duela.

### **Reggio Emiliako LHn kontuan izan dituzten hainbat gako**

Eskolako estilo orokorra, alegia, curriculum eraikitze zenbait oinarri izan dituzte kontuan Scuola Primaria Loris Malaguzzi zentroan. Giroaren, hau da, testuinguruaren eraikuntza da eskolan landu duten lehen puntua. Espazio fisikoaren egituraketan parte hartu ahal izan du eskola-komunitateak. Baina horrez gain, zentroan gertatzen diren harremanak —pertsonek artekoak nahiz pertsonen espazioarekin dituztenak— nolakoak izango diren ere erabaki ahal izan dute.

Tedeschik azalduetako moduan, eskola eraikitze obretan parte hartzeko aukera izan dute eta zentroa diseinatzerako orduan hainbat erabaki hartu ahal izan dituzte: altzairuak, argia, espazioaren banaketa, materialak... “Diseinuan parte hartzea interesgarria da, baina are garrantzi-

tsuagoa da lekuak berak zein aukera eskaintzen dituen kontziente izatea eta aukera horiek aurreikusteko gai izatea. Eta ez naiz ari soilik alderdi fisikoaz edo arkitektonikoaz, baita alderdi emozionalaz ere. Hori guztia txertatu behar da curriculumaren eraikuntzan”.

Kontuan izanik eskola hiriko leku publiko bat dela, kultura sortzen duena, eta sortzen duen kultura hori hiriarri proposatzen eta aurkezten diona, bigarrenik, eskolaren irekitasuna nahiz gurasoen parte hartzea landu dituzte. Zentroko pedagogoen esanetan, “eskolaren estiloa” deitu duten hori —alegia, curriculum— diseinatzerako orduan funtsezkoa da familien parte-hartzea: “Altzariak egiten edota eskolara materiala ekartzen parte har dezakete, baina alderdi fisikoari dagokionez soilik ez, eskolaren eduki teoriko eta epistemologikoak erabakitze orduan ere familiak parte-hartzaile aktibo izatea nahi dugu”. Era berean, eskola toki publiko bat den heinean, leku irekia izan behar du Reggio Emiliako filosofiaren arabera; ez soilik egiten dituen ekimenen bidez, baita fisikoki ere: esaterako, espazioen jarraitutasunaren nahiz gardentasunaren bidez (adibidez, hormen ordez kristala erabiliz).

### **Ikasgela, konstelazio bat**

Espazio ezberdinak elkarrekin konektatuta daude Scuola Primaria Loris Malaguzzi-ko ikasgeletan. Hainbat txoko dituzte, talde handitan zein txikitik, edota banaka, lanean aritzeko

“Umearen berezitasunak eta haren dimentsio emozionala, afektiboa nahiz sentimentala kontuan izan behar ditu helduak, eta beste guztiaren gainetik, seguru sentiarazi behar du egiten ari den bidearen balioaz. Haurrak sentitu behar du berak ere aurkituko duela bide bat. Bide hori desberdina izango da, denok garelako desberdinak. Baina bide hori ere zilegi izango da”.

aukera ematen dietenak. Ez daukate arbel, aulki edota mahai tradizionalik, eta geletan ez da ikusten motxilarik, estutxerik edota ikasle bakoitzaren izena daraman ikasmaterialik. Ez daukate ikasgela edota txoko eredu bakarrik ere, baizik eta era askotako espazioak dituzte. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta era askotako lan-aukerak eskaintzen dizkiete haurrei. “Gure eskolako arkitektura fisikoak ez du baldintzatzen ikasgelaren erabilerara, baizik eta aukera interpretatibo ezberdinak ematen ditu. Lan egiteko aukera eta modu askotarikoei atea irekitzen die arkitektura horrek. Gure eskolan inoiz ez dira aritzen haur guztiak aldi berean gauza berbera egiten. Ikasmaterialetarako ematen zaigun dirua, berriz, ikasle guztien eskura dagoen gelako liburutegia osatzeko erabiltzen dugu”, argitzen du Tedeschik.

Eta, norabide berean, hainbat gogoe-tagai proposatzen ditu:

1. Ez pentsatzea atek itxita dituen eskola batean: Tedeschiren hitzetan, abiapuntua da eskolaren barruan gertatzen den guztia edozeinek ikusi ahal izateko baldintzak ezartzea. Alde batetik, pentsatu behar litzateke nola egin daitekeen posible era askotako ikaskuntza-prozesuak aldi berean garatzeko modua, gelako txoko ezberdin bidez; eta bestetik,

pentsatu behar litzateke nola egin ikusgarri heziketa-prozesu hori. “Eskolak espazio irekia eta demokratikoa izan behar du eta bertan gertatzen diren ekintzak herriarekin partekatu behar ditu; baina era berean, herritik edan behar du. Hala, umeek zein helduek ez dute soilik barruan gertatzen denaren berri izango, baita kanpokoaren berri ere. Eskola oso leku irekia denez, bakoitzak bere ezaugarri pertsonalak eramatzen ditu bertara eta ezaugarri horien arabera ematen dio forma eskolari. Beti, norbera besteen parean jartzeko eta norbanakotik abiatuta taldea egiteko ikuspengiarekin. Alegia, inork ezin du ikasgelako atea itxi eta bere kasa bakarrik antolatu han gertatuko dena. Hau guztia eztabaidagarria izan liteke, baina hori guretzat printzipio etiko bat da”.

2. Haurrak egingo duen ikasketa-prozesua ez izatea soilik tokatu zaion irakaslearen arabera: Tedeschik esplikaturako moduan, zenbait eskolatan haurrak 3 edo 5 urtez irakasle berberarekin egoten dira. “Batziek zortea izaten dute hezitzaile zoragarria tokatu zaielako, baina halako zortetik izan ez dutenekin zer gertatzen da?”. Pedagogoa gaineratzen duenez, normala da hezitzaile bakoitza bakarra izatea eta bere bereizgarriak edukitzea, baina eskolak bermatu behar du haurrek heldu bat baino gehiagorekin harremana izatea, eta ikasleen garapena ez egotea hezitzaile bakarraren mende.

3. Eskola izaki bizidun bat bailitzan ulertzeko ahalegina egitea: eskola interes-gunea eta haurren nahiz helduen curiositatea aktibatuko duen eremua izan behar duela ulertzen dute Scuola Primaria Loris Malaguzzi-n, eta ikasle guztiei lanerako nahiz elkarrekin egoteko aukera berberak eskaini behar dizkiela uste dute. Tedeschik adierazitako eran, eskolak nortasuna eduki behar du, baina nortasun hori ezin da izan

estankoa, etengabe bilakaeran dagoena baizik: “Eskolako testuinguruak haurrari zein helduari egunero zerbait berria eskaini behar dio, jakin-mina piztuko diona eta eskolara egunero doalako plazera eragingo diona”.

### **Espontaneoki eta libreki jarduteko aukera ematen duten testuinguruak**

Scuola Primaria Loris Malaguzzi zentroan haurrak 7:30ean sar daitezke eskolara, nahiz eta gehienak 8ak inguruan iristen diren. Reggio Emiliako Haur Hezkuntzan nahiz Lehen Hezkuntzan bi hezitzailek hartzen dute esku talde bakoitzeko. HHn denbora guztian aritzen dira biak; LHn, berriz, txandaka: bat goizez eta bestea arratsalde, baina asteko zenbait egunetan eta ordutan biek batera jarduten dute.

Gelako giroa nahiz eta helduek diseinatuta egon, aukera ematen du umeek beren kasa, espontaneoki eta libreki, askatasunez nahi duten ikerketa egin dezaten. Hala, material desberdinak proposatzen dizkiete eta haur bakoitzak erabakitzen du bere bidea nola egin, dituen interesen arabera. Tedeschik adierazi bezala, Reggio Emiliako eskolak ez ditu galderak planteatzen ondoren erantzunak eskaintzeko, baizik eta ume eta helduen artean galderak eraikitzen ditu, ondoren guztien artean erantzun eta argumentazio posibleak bilatzeko eta jakintzara iristeko era bateko zein besteko hurbilpenak egiteko.

Pedagogoa aburuz, eskolaren zereginik garrantzitsuenetarikoa bat umeentzat esanguratsuak izango diren testuinguruak eskaintzea da, haien zentzua izango dutenak, alegia. Eta ikasleei testu bat idatz dezaten egin ohi zaizkien proposamenen adibidea jartzen du: “Italiako eskola tradizionalan, esaterako, umeei euren pentsamenduak edo gogoetak idazteko eskatzen zaie. Haurrari segituan otutzen zaion galdera zera da: ‘Eta zer idatzi behar dut?’”. Horrek mekanismo dramatiko batera darama. Izan ere, umeak segituan ulertzen du irakasleak zer nahi duen berak idaztea eta horixe idazten du. Aldiz, umeari berarentzat zentzua izango duen testuinguru bat eskaintzen badiotzu,



proiektu edo gai zehatz bati lotua, egingo duen lanak beste dimentsio bat hartuko du”.

Horrekin batera, Tedeschiren irudiko, oso kontuan eduki behar da umeek Lehen Hezkuntzako aldian oso adimen konkretua eta esperientziala dutela. Horregatik bi mailak elkartzeko aholkatzen du: alde batetik, elementu abstraktuak, baina bestetik, esperientzia konkretuen bitartez, adibidez, eskuekin objektuak manipulatu, ideiak eraikitzen ditu haurrak. Umeek premia dute, eta baita eskubidea ere, euren kabuz, nola arrazoimenaren bidez hala objektuak erabiliz, pentsamenduak eraikitzeko”. Izan ere, Reggio Emilian argi dute umeak eurak direla beren jakintzaren eraikitzaile —biologikoki horretarako daudela prestatuta—, baina ibilbide hori egoki burutu dezaten aukera desberdinak eskaini behar zaizkiela uste dute. Tedeschik azaltzen duenez, zenbait gaitasun ez badira haurtzaroen zehar esperientziaren bidez aktibatzen, burmuineko sare-neuronal guztiak ez dira garatuko eta helduaroan horiek garatzea askoz ere nekezagoa izango da. “Horregatik estimulu eta pizgarri asko dituen giroa eskaini behar zaie haurrei, aukerak emanaz, baina inposatu gabe. Beharbada egindako guztiak ez du momentuan fruiturik emango, baina zabalik utziko ditu atea etorkizunerako”.

### Heldua, bideratzaile

Haurrek jakintza eraikitzeko berezko gaitasunak badituzte eta eskolako testuinguruak gaitasun horiek garatzeko aukerak ematen badizkie, nolakoa izan behar du helduak jokatzeko duen rola? *Irakasle* hitza baino nahiago dute *erraztaile* edo *bideratzaile* kon-

tzeptuak erabiltzea Reggio Emilian helduen lana definitzeko, irakatsi baino gehiago haurren ikaskuntza-prozesua erraztea baita euren zeregina: “Horrek esan nahi du umeak ikasketa-prozesuan behar dituen baldintzak eragiten edo sortzen dituela helduak. Bideratzaileak zentzua eman behar dio umea eraikitzen ari den horri. Era berean, helduak aurreikusi egin behar du umeak egiten ari den horren ondoren zer egin dezakeen, alegia, nola garatu dezakeen ahalik eta mailarik gorenera bere ikasketa-prozesua, gero horren araberrako proposamen berriak egiteko umeari”, dio Tedeschik.

Era berean, helduak umearentzat erreferentzia izan behar luke, eredu bat eskaintzeko, hainbat orientabide emateko, bideak errazteko, aukeratzeko, laguntzeko, gauzen artean egon daitezkeen loturak aurkitzen bidelagun izateko... Horrez gain, Tedeschik azaldutako moduan, Scuola Primaria Loris Malaguzzi zentroan helduen beste egiteko oso garrantzitsu bat umeari berorri egiten ari den bidearen gainean segurtasuna ematea da: “Umearen berezitasunak eta haren dimentsio emozionala, afektiboa nahiz sentimentala kontuan izan behar ditu helduak, eta beste guztiaren gainetik, seguru sentiarazi behar du egiten ari den bidearen balioaz. Haurrak sentitu behar du berak ere aurkituko duela bide bat. Bide hori desberdina izango da, denok garelako desberdinak. Baina bide hori ere zilegi izango da. Beraz, eskolak ume guztiak eta haiek egiten ari diren bide guztiak zilegitzat hartu behar ditu”.

### Ebaluazioa umeari balioa emateko

Hitzaren etimologiatik abiatuz, Scuola Primaria Loris Malaguzzi zentroan argi dute *ebaluazioa* hitzak

*balioa ematea* esan nahi duela, eta ez inor epaitzea edo zanpatzea zenbaki batekin, momentu jakin batean eduki duen performance-ari nota jarritz. Badakite, era berean, umeek badituztela puntu ahulak, zailtasunak, galderak, ez dakizkiten gauzak... eta diote, horixe dela, hain justu, landu behar dena: “Noten bidez egin ezin duguna da puntu ahul horiek txartzat hartu, gero horien gainean lan egin beharko baitugu”.

Beraz, gurasoekin batera hainbat bilera egin ostean erabaki bat hartu dute ebaluazioaren inguruan eta protokolo bat osatu dute, ministerioaren aginduz notak jartzea derrigorrezkoa baita. Hala, gurasoekin elkarlanean notak jartzeko hiru zenbaki erabiltzea adostu dute: 6, 7 eta 8. 6aren kasuan, aditzera ematen da ume horrek galdera asko irekita dituela oraindik; 7ak esan nahi du umeak segurtasuna erakusten duela jakintzak jasotzeko orduan; eta azkenik 8ak adierazten du gaitasunak eskuratzeko prozesua oso ondo ari dela garatzen eta gai dela giro lasai batean lan egiteko. Nota horiek dokumentu ofizialetan jasotzen dira urtean bitan: ikasturtearen erdian eta amaieran. Baina, gainontzean, egunez eguneko lanetan ez dute erabiltzen inolako notarik, ez zenbakirik, ezta ezelako sinbolo edo ikonirik ere.

Horrez orde, autoebaluazioari ematen diote garrantzia, uste baitute haurrak oso kapazak direla zehaztasunez azaltzeko zein gaitasun lortu dituzten, eta zeintzuk falta zaizkien oraindik eskuratzeko. “Umeak gai dira beren buruak ebaluatzeko. Eta, gainera, oso zehatzak izaten dira eta batzuetan oso zorrotzak ere bai euren burua baloratzerako orduan”.

# ESPERIENTZIAK 2

IKASKETA-ZERBITZUA

## Jakintza eskuratu, komunitatearentzat lan eginez

Premisa nagusi bat du oinarri Ikasketa Zerbitzuak: ikaskuntza-prozesuek hobera egiten dute, komunitateari emandako zerbitzuen bidez, eta, horren ondorioz, komunitateak irabazi egiten du bizi-kalitatean eta ekitatean; era berean, komunitateari zerbitzua eskaintzeak zentzua ematen dio ikaskuntza-prozesuari, aukera ematen diolako ikasleari jakintzak errealitateara transferitzeko. Horren guztiaren berri emateko, "Ikasketa Zerbitzua. Parte-hartzea hezkuntza-erreminta gisa" izeneko jardunaldia egin zen Gasteizen, martxoaren 17an. Jolas eta Ekin elkarteak antolatu zuen, Zerbikas Fundazioarekin elkarlanean. Ikasketa Zerbitzua zer den azaltzeaz gain, hainbat jardunbide egoki erakutsi zituzten.



Monike Gezuraga.


**E**z da asmakuntza berria Ikasketa Zerbitzua, baina bada proposamen pedagogiko berri-erreminta"; horixe dio Monike Gezuraga Amundarainek, EHUko irakasleak, Ikasketa Zerbitzuko adituak eta Zerbikaseko kideak. Haren esanetan, bat datoz puntu batean hezkuntza-arloko profesionalak: gaur egun, ezin da ulertu heziketa, mundu profesionalari begira soilik. "Edozein ikastetxetako hezkuntza-programetan irakur daitezkeen helburuak dira honako hauek: euskalduna izatea, eta parte-hartzailea, demokratikoa, plurala, baterako hezkuntzan diharduena, hezkidetzat sustatzen duena... Erraz

esaten da, baina lortzen ote ditugu xede horiek benetan? Irudipena dut hezkuntzako profesional gehienok nahi baino gehiagotan sentitzen dugula erremintak falta zaizkigula". Hain zuzen ere, norabide horretan lan egiten lagun dezakeelako da berri-erreminta Ikasketa Zerbitzua, adituaren aburuz.

Baina zer esan nahi du *Ikasketa Zerbitzua* kontzeptuak? Besteei zerbitzu bat ematen zaien bitartean ikasteko aukera ematen duen proposamen pedagogikoa da. Alegia, pertsona baten ikaskuntza-prozesua eta pertsona horrek komunitatearentzat egiten duen lana uztartzen dituen metodologia da. Ez da ezer konplexua eta sofistikatua, eskola askok eta askok noiz edo noiz erabili duen metodologia baizik.

Ikasketa Zerbitzua abian jartzeko, errealitatearen analisia egiten da lehenik, eta inguruan suma daitezkeen gizarte-beharrak identifikatzen dituzte hezitzaileek zein ikasleek. Bigarrenik, galdera honi erantzuten saiatzen dira: "Zer egin dezakegu errealitate hori eraldatzeko eta hobetzeko?". Hala, ideia-jasa egiten dute, horren ondoren proiektu bat egituratzeko eta garatzeko. Azkenik, ebaluazioa egiten da, eta proiektuak eman dituen emaitzak ospatu egiten dira.

Adibidez, ikasle batzuek erreka batetik lagin bat hartzen badute eta gero zientziako eskolan lagin hori aztertzen badute, landa-lana ari dira egiten; aldiz, ikasleek erreka zati bat



garbitzen badute, komunitate-zerbitzu bat ari dira egiten. Baina, ikasle horiek zientziako eskolan kutsatutako ur horrekin zer gertatzen den iker-tzen badute, ur horrek ingurumenari nola eragiten dion aztertzen badute eta, horren guztiaren jakitun izanda, egoera hobetzeko zenbait lan egitea eta proiektu bat garatzea erabakitzen badute, Ikasketa Zerbitzua litzateke hori.

Azken batean, bi ardatz nagusi ditu Ikasketa Zerbitzua: zerbitzuak (komunitatearentzat egiten diren lanak) eta ikasketak (ikasleak barneratzen duen jakintza). Bi ardatz horiek elkarriketan jarriz, hainbat heziketa-esperientzia gerta daitezke:

1. Alde batetik, **landa-lana** dago. Adibidez, irakasle batek Gizarte Zientzietako eskolak ematen ditu, eta egun batean erabakitzen du ikasleekin museo batera joatea eta han zerbait zehatza lantzea. Asistematikoa da, oso puntualki egiten den zerbait. Asko ikas dezakete ikasleek horrekin, baina txikia litzateke komunitateari emandako zerbitzua.
2. Bigarrenik, **noizbehinkako jarduera boluntarioak** daude. Adibidez, egun batean ikasleekin erreka bat garbitzera joatea,

hango kutsadura gutxitzeko asmoz. Gezuragak azaldu duenez, ikasleek ikasitakoa gutxi litzateke kasu horretan, eta emandako zerbitzua, berriz, txikia. “Erreka bat garbitzera joan gaitzake egun batean, hori egitea bururatu zaigulako, baina ez dauka heziketarekin loturiko helburu zehatzik, zerbait puntuala delako. Era berean, emandako zerbitzuak ere ez luke balio handirik”.

3. Hirugarrenik, **borondatezko lana** dago. Aurreko puntuarekin alderatuta, lan hori sistematikoa izatean legoke ezberdintasuna. Hau da, modu sistematikoan komunitateari zerbitzu bat ematea litzateke gakoa. Adituaren hitzetan, kasu horretan emandako zerbitzua handia litzateke, baina ikasleek ikasitakoa, aldiz, txikia, heziketarekin loturiko helbururik ez dagoelako finkatuta.
4. Amaitzeko, baina, bada aukera bat, zeinetan emandako zerbitzua nahiz lortutako jakintza altua den: **ikasketa-zerbitzu solidarioa**, hain justu. “Horixe da kontzeptu berritzailea. Izan ere, ikasketa-proposamenak betidanik egin dira. Sarri egin dira solidarietatearekin nahiz boluntariotzarekin loturiko proiektuak ere.

Baina inoiz uztartu ote dira biak? Ikaskuntza-prozesua eta komunitate-lana uztartzea, horixe da Ikasketa Zerbitzua egiten dugun ekarpena”.

### Nola gauzatzen da Ikasketa Zerbitzua erakutsiaren proposamen bat?

Proiektu baten bidez gauzatzen da Ikasketa Zerbitzua. Beraz, beste edozein proiektutan bezala, hainbat fase izaten dira kontuan. Lehenik, zirriborro bat egiten da proiektua nondik nora joan daitekeen irudikatzen. Bigarrenik, harremanak egin behar dira garatu nahi den proiekturako interesgarriak izan daitezkeen gizarte-eragileekin. Horren ondoren, plangintza egiten da: “Proiektu batek plangintza bat izan behar du atzean, nola ez. Are gehiago, heziketa-prozesu batez ari garenean. Ezin dugu horrelakorik pentsatu: “ea zer ateratzen den hemendik”. Hala, planteatutako proiektua prestatu eta garatu egin behar da, eta amaiera eman behar zaio. Gainera, ez dugu edozein modutan amaituko, ospakizun batekin baizik. Ospatu egiten dugu guztiok izaniko inplikazioa, denok eginiko ekarpena”. Eta, azkenik, ebaluazioa egiten da: “Besteei zer eman diegun eta besteei zer jaso dugun aztertzen dugu, eta prozesu guztiaren gaineko haus-



70 partaide inguru elkartu ziren jardunaldian.

narketa egiten dugu, gauzek zentzua har dezaten, eta gauzak ez egiteko egiteagatik”.

Ikasketa Zerbitzuak onura asko eta askotarikoak izan ditzake ikasle zein irakasleentzat, Gezuragak dioenez. Hasteko, balioak garatzen laguntzeko balio duen erreminta da. Horrez gain, eragin positiboa du, ikasleen garapen kognitiboan ez ezik, garapen pertsonalean zein sozialean ere, ikerketek erakutsi dutenez. Era berean, egiaztatu dute Ikasketa Zerbitzuetan parte hartzeak irakasleen motibazioa sustatzen duela. Eta, adituaren arabera, onurak dakartzkie administrazioari nahiz, oro har, jendarteari, batetik, kanpora irekitzeko eta sareak egiteko aukera ematen duelako, eta, bestetik, jakintzaren eraikitze kolektiboaren eta demokratikoaren alde egiteko balio duelako. “Ikasketa Zerbitzuarekin, eginez ikasten da, eta argi erakusten du posible dela inguruan aldaketa txikiak eragitea. Gertuko proiektu txikiekin hastea komeni da, hala, haurrek egingarria dela ikusiko baitute, eta aldaketak egitea norberaren esku dagoela”. Gezuragak gaineratu duenez, Ikasketa Zerbitzuak badu beste onura bat ere: oso asebetegarria da irakasleentzat zein ikasleentzat.

### Gertuko esperientziak

Ikasketa Zerbitzua praktikan eza-

gutzeko, beren esperientzia aurkeztu zuten Bizkaiko eta Arabako lau ikastetxek Gasteizko jardunaldian:

- **Portugaleteko Santa Maria ikastetxea:**

4DBHko 4. mailako ikasle guztiak, 100 inguru guztira, “Hiri Lagunkoia” izeneko proiektuan ari dira parte hartzen ikasturte honetan. Haien egitekoa Portugaleteko eremu publikoaren nahiz Santa Maria ikastetxearen beraren azterketa egitea da, berorietan irisgarritasuna nolakoa den ikusteko eta horren aurrean neurriak hartzeko. Hasteko, harremanetan jarri ziren FECOR elkartarekin, eta mugitzeko zailtasunak dituzten lagunekin elkartu ziren, irisgarritasunaren inguruan hitz egiteko. Gero, taldetan banatu ziren. Gorpildun aulkian ibiltzen zen pertsona bat sartu zuten talde bakoitzean, eta Portugaleteko mapa bat eman zioten talde bakoitzari, irisgarritasunaren inguruko azterketa egin zezaten. Emaizta argigarria izan zen: ikertutako tokien % 25 ziren soilik irisgarriak; % 75, berriz, ez ziren irisgarriak. Beste horrenbeste egin zuten ikastetxean ere. Egoera “nahiko larria” dela ikusirik, Portugaleteko alkatetzarekin nahiz ikastetxeko zuzendaritzarekin harremanetan jartzea erabaki dute ikasleek, eta irisgarritasun-legea betetzeko eskatzea.

“Ikasketa Zerbitzuarekin eginez ikasten da eta argi erakusten du posible dela inguruan aldaketa txikiak eragitea. Gertuko proiektu txikiekin hastea komeni da, hala haurrek ikusiko baitute egingarria dela eta aldaketa egitea norbere esku dagoela. Ikasketa Zerbitzuak badu beste onura bat ere: oso asebetegarria da irakasleentzat zein ikasleentzat”

- **Murgia institutua:**

Ikastetxe horretan ere, DBHko 4. mailako ikasleak ari dira Ikasketa Zerbitzuko proiektua burutzen, Jolas eta Ekin elkartearen laguntzarekin. Oraindik amaitu ez badute ere, oso pozik eta harro daude orain arte lortutakoarekin. Hiru proiektu ezagutu zituzten ikasleek, eta horien artean aukeratu behar izan zuten: 1. Kontsumo etikoa; 2. Urkabustaizko Gazte Biltzarra; 3. Zaharren Egoitza. Ikasleak gehien hirugarrenak hunkitu zituzten, proiektu hari heltzea erabaki zuten aho batez. Hala, Murgiko Zaharren Egoitzara joaten dira astero, eta hainbat ekintza egiten dituzte hango pertsonekin; hala nola Wii jolasak, argazkigintza, egoitza apaintzeko eskulanak, sukaldaritza, mus-txapelketa, dantza... “Gure helburua da elkarrekin ikastea eta elkar aberastea”, diote ikasleek.

- **Gasteizko San Viator ikastetxea:**

Joan den ikasturtean, diru-laguntza bat lortu zuten, Ikasketa Zerbitzuko proiektua aurrera eramaten lagunduko zien hezitzaile bat ikastetxean bertan egon zedin, eta halaxe ekin zioten bideari. Ikastetxearen hasierako helburua ikasleek euren ezagutza gizartearen zerbitzura jartzea zen. Hastapenetik, argi zuten proiektua ez zela izango irakasle bakarrarena edota gutxi batzuen soilik; aitzitik,



Ikasketa-Zerbitzuen ganean egindako esperientziak azaldu zituzten ikastetxe guztietako partaideak ageri dira argazkian.

ikastetxe guztiaren egitekoa izango zen, eta, beraz, guztiak inplikatuko ziren.

10 urratsetan garatu zuten proiektua San Vitorren. Lehenik, erabaki zuten ikasleek zein irakasleek Ikasketa Zerbitzua eta hezkuntza parte-hartzea zer den ikasi behar zutela. Horren ondoren, Gasteizko zenbait elkarte ezagutzeko abagunea izan zuten, eta, prostitutekin lan egiten duen talde batekin elkarlanean, proiektu bat garatzea erabaki zuten. “Nik zer egin dezaket prostitutei eta haien sendikoei laguntzeko?”; horixe izan zen ikasle gehienek galdera hastapenean. Horri erantzuteko, ideia-jasa bat egin zuten, eta hainbat ariketa eta ekintza planifikatu zituzten emakumeekin nahiz haien seme-alabekin egiteko, hala nola webguneak egiteko lantegiak, informatika, inauteri-festa...

Proiektua aurrera eramateko hainbat zailtasun izan badituzte ere –besteak beste, logistika, motibaziorik eza, ordutegiaren muga edota eskarmenturik eza–, oso balorazio baikorra egin dute, oro har, ikasle nahiz irakasle taldeentzat onura nabarmenak izan dituela uste baitute: talde-lana indartu da; borondatezko lana egiten ikasi dute; egindako lan osoa ikusteko aukera izan dute, eta konturatu dira jaso dutena espero zutena baino handiagoa izan dela; autonomia lantzeko aukera izan dute, ardura eta gizarte-

rekiko konpromisoa garatu ahal izan dituzte, eta abar.

- **Gasteizko Sansomendi ikastetxea:**

Ikasketa Zerbitzuko “Ikasle arteko laguntzak” izeneko proiektua garatu dute ikastetxe horretan. Zentroko ikasle guztiek hartzen dute parte, Haur Hezkuntzatik hasi eta DBHrainera. Eskola-orduetan egiten dute dena, eta xedea da ikasle nagusiek txikiei laguntzea. Hala, eduki akademikoak lantzeaz gain, errespetua, elkartzuna, esfortzua, pazientzia eta horrelako balioak barneratzen dituzte. “Ikasle arteko laguntzak” proiektuaren barnean, bost ekimen garatu dituzte:

1. DBHko boluntarioak: DBHko lehen mailako boluntarioak LHko 1. eta 2. mailara eta Haur Hezkuntzara joaten dira astean arratsalde batean, elkarrekin hainbat gai jorrazteko. Saioak DBHko ikasleek dinamizatzen dituzte, baina irakasleak ere gelan egoten dira, nagusiki, behaketa-lanak egiten.
2. Irakurle laguna: astean arratsalde batean, 6. mailako ikasleak 2. mailakoengana joaten dira, eta 5. mailakoak, berriz, 1. mailakoengana. Gelako txoko guztiak aprobetxatuz, binaka jartzen dira, eta elkarri irakurtzen diote. Oso saio

erakargarria izan ohi da ikasleentzat, eta oso gustura egoten dira.

3. Ipuinen irakurketa Haur Hezkuntzan: 3. eta 4. mailako ikasleak Haur Hezkuntzakoengana joaten dira, eta ipuin klasikoak irakurtzen dizkiete 3, 4 eta 5 urteko haurrei. Astero egiten dute hori ere.
4. Laborategiko laguna: DBHko 2. mailako ikasleek LHko 6. mailakoekin egiten dute ekintza hori, eta DBHko 1. mailakoekin, LHko 5. mailakoekin. Nagusiek, aurrez, natura-arloarekin loturiko esperimendu bat prestatzen dute, eta gazteagoekin egiten dute gero, hilean behin. Ikasle gazteentzat oso ekintza aberasgarria izan ohi da, besteak beste, laborategira joateko aukera dutelako, bai eta euren erreferente diren nagusiekin elkarlanean aritzeko aukera dutelako ere.
5. Matematikako laguna: DBHko ikasleek LHko 3. eta 4. mailako ikasleekin astero matematika lantzeko egiten duten ekimena da. Binaka edo hiru-naka, matematika lantzen dute, manipulazioaren bidez edota jolasen bidez.

\* Informazio gehiagorako, [jolasetekin.org](http://jolasetekin.org) edota [zerbikas.eus](http://zerbikas.eus) webgune-tara jo daiteke.

# EKARPENAK

SEXUALITATEA HEZKUNTZAN

---

## Intersexualitatearen gorabeherak (aurrerantz ala atzerantz)

Jaiotzean –kasu batzuetan, jaiotzean aurretik ere–, bi sexu-takoko bat esleitu ziguten guztioi, gure genitalen arabera, seguru asko. Neska edo mutila. Neska izanez gero, gauza jakin batzuk espero zituzten zugandik: portaera, gaitasun eta jarrera jakin batzuk... Horietako asko, gainera, mutila izanez gero espero izango zituztenez oso bestelakoak, are kontrajarriak.



**Jorge Ortega  
Fernández**

Sexologoa,  
hezitzailea eta  
antropologoa

\* Gaztelaniatik euskararako itzulpen-lana Asier Ormazabal Lizeagak egin du.

naiz. Adibidez, pentsatzea mutil bat, mutil izate hutsagatik, ez dela arituko “nesken” jolas jakin batzuetan, sexu-joera heterosexuala izango duela eta, gainera, ezinbestean, zakarra izango dela bere gizarte-harremanetan<sup>1</sup>. Oraindik ere, horrelaxe jokatu ohi dugu gaur egun, ezta? Gauza asko jakintzat edo behin betikotzat emanez..

Desoreka horietako batzuei ez zaie garrantzi handirik ematen; beste batzuk, berriz, pertsonaren bertute modura hartzen dira; eta, azkenik, badira desoreka batzuk “patologia-munstrokeria-bekatu...” modura hartzen direnak (garai historikoaren eta gizarte-testuinguruaren arabera). Eta, beti izan diren arren moldeetara ongi egokitzen ez diren pertsona xelebreak, *marimutilak* edo *maritxuak*, “itxuraz”, gehiengo ongi egokitzen zaio “benetako” gizona edo emakumea deritzon horri. Eta “itxuraz” diot, zeren, arretaz eta adi begiratu gero, berehala ikusiko baikenuke subjektuak askotarikoak direla eta oso zaila gertatzen zaiela arau finko, estandar eta generikoei men egitea.

Sexologian, sexutzeaz hitz egin ohi da, emakume edo gizon jakin bat emakume edo gizon jakin hori (eta ez beste bat) izatera iristeko prozesu biografikoa adierazteko<sup>2</sup>. Prozesu horretan, subjektuen sexu-ezaugarriak<sup>3</sup> konfiguratu dituzte hainbat

**B**atzuetan, gutako askori gertatu izan zaigun moduan, desoreka gertatzen da norbaitengandik espero dugun horren eta norbait horrek bere buruaz adierazten edo esaten duen, hautematen duen eta munduari erakusten dion horren artean. Gizarte-iguripenen (emakumea edo gizona izan, horren arabera gugandik espero ohi dena) eta subjektu sexudun batengan sexu-ezaugarriek duten konfigurazio espezifikoaren (dagoeneko izan bagaren gizon edo emakume horren izateko modua) arteko talkaz ari



elementu sexutzailek<sup>4</sup>. Ez dirudi bi subjektu berdin izan daitezkeenik, eta, era berean, ez daude bi sexutze prozesu berdin. Hortaz, bereizketara eta indibidualizazioa garamatzen bide bat dela esan daiteke, funtsezko giza ezaugarria askotarikotasuna dela erakusten duen bide bat. EMAKUME ETA GIZON ASKOTARIKOAK<sup>5</sup> DIRA “BENETAKO” EMAKUMEAK ETA GIZONAK.

### Sexu dimorfismoa Vs. intersexualitatea

Sexuak edukiontzi iragazgaitz eta bereizi modura hartzen dituen ikuspegiari “sexu dimorfismo” deritzo, eta Mendebaldeko tradizioan XVIII. mendean sartu zen, Ilustrazioaren garaian, azaltzeko gizaki izateko bi era zeudela: bi sexu.

Sexu dimorfismoak proiektatzen dituen irudietan, ordea, sexuek ez dirudite gai beraz eginak; alegia, gizonak dirudite halako planetakoak, eta emakumeak, berriz, halako beste galaxiakoak. Eta, horrela, pentsatu ohi da gizonak badutela emakumeenarekin bateraezin den izendatzaile komun txikiren bat. Paradigma horren arabera, izugarizko ataka dago bi sexuen artean. Subjektu sexudunak, hala, osinaren mutur bietako batean leudeke.

Sexologian, intersexualitatearen ideiak, aldiz, iradokitzen du gizonak eta emakumeak –hau da, subjektu sexudunak– izaki intersexudunak direla, izatez. Esan dugunez, gizabakoaren bizitza osoa hartzen duen prozesu biografiko batean zehar sexutzen dira subjektuak, eta bide horretan bihurtzen dira izaki bakar eta berdingabeak. Bada, prozesu horretan, koherentzia ez da hainbeste sexu dimorfismoari lotua (alegia, forma bat emakumeentzat eta beste bat gizonentzat), baizik eta intersexualitateari lotua. Hortaz, ez legoke “benetako” gizonik, ezta emakume huts den emakumerik ere. Intersexualitatea litzateke araua, eta “sexuen continuum” batean kokatuko lituzke horrek subjektu sexudunak.

Intersexualitatearen arau horri jarraituz, subjektuak ezin konta ahala esparru eta gertaera jakinetan sexutzen dira. Maskulinitatea eta



feminitatea lirateke continuum edo jarraitutasun horren (sexuen continuuma) bi muturrak, eta sexutze esparru bakoitzean leudeke bi mutur horiek, bi norabide horiek: femeninoa eta maskulinoa. Hala, subjektu sexuduna elementu eta esperientzia sexudun askoren batura izango da, eta horietako bakoitzean maskulinoa edo femeninoa izan daiteke.

Sexologia Zientziaren Institutuan (INCISEX), “adreiluen metafora” baliatu ohi dute intersexualitatea azaltzeko. Metafora horren arabera, eraikinen modukoak dira pertsonak, adreilu ugariz eginak. Adreiluak urdinez edo arrosaz margotzen dira (erraz ulertzeko: urdinez, maskulinoan sexutu direnak; arrosaz, femeninoan sexutu direnak). Era berean, eraikina bera urdina edo arrosa da, itxuraz, eta halaxe sentitzen da. Baina hormara hurbildu ahala, ohartuko gara ez dagoela adreilu arrosak soilik edo urdinak soilik dituen eraikinik. Eraikin konplexua baikara, alajaina. Intersexualak baikara.

**Sexu dimorfismoaren paradigmatik irteteko beste saiakera batzuk. Zertan ez datzan guk darabilgun intersexualitatearen kontzeptua**  
Sexu dimorfismotik abiatuta sexuak

entitate koherente<sup>6</sup> eta iragazgaitz modura ulertzen direnez, sexu ezaugarri primario, sekundario eta tertziarioek beren arteko koherentziaren printzipio horri eutsi beharko liokete. Hala, adibidez, emakume baten sexu ezaugarriren bat hari buruz esperotakoarekin bat ez badator, intersexualitate kasu gutxi-asko bitxizat hartuko dugu, eta hura patologizatzeko joera izango dugu.

Baina kontua da sexu ezaugarri horiek guztiak ez direla hartzen garrantzi berekotzat; alegia, gizartearen ikuspegitik, ez da gauza bera emakumeak “ohikoa baino” ile gehiago izatea” hanketan eta besoetan eta “emakume bizarduna” izatea, edo zakila gogoraz dezakeen neurriko klitorisa duen emakume bat<sup>8</sup>. Emakume batengan ematen diren sexu ezaugarri maskulinoen intersexualitatearen hiru modu lirateke.

Sexu dimorfismoaren paradigmatik irteteko ahaleginean (paradigma zapaltzailea denez), Anne Fausto-Sterling biologo eta feministak lan handia eta bikaina egin du genital anbiguoak dituzten subjektuei buruz eta horiek sexuen gaineko sistema biomedikoarekin, kulturarekin eta politikarekin duten erlazioari buruz. Fausto-Sterlingek intersexualitateaz

“Gizabanakoaren bizitza osoa hartzen duen prozesu biografiko batean zehar sexutzen dira subjektuak, eta bide horretan bihurtzen dira izaki bakar eta berdingabeak. Bada, prozesu horretan, koherentzia ez da hainbeste sexu dimorfismoari lotua (alegia, forma bat emakumeentzat eta beste bat gizonentzat), baizik eta intersexualitateari lotua. Hortaz, ez legoke 'benetako' gizonik, ezta emakume huts den emakumerik ere. Intersexualitatea litzateke araua, eta 'sexuen kontinuum' batean kokatuko lituzke horrek subjektu sexudunak”

“Subjektu 'normalak' fikzio hutsa direla pentsa daiteke: denak gara, ala inor ez gara. Agian, norberaren bitxitasunak egiten gaitu beste subjektu batzuentzat erakargarri. Hala balitz, arauetatik bereizten gaituen hori ezkutatu orde, gure bitxitasunak landu genitzake, René Char poetak zioen moduan: Garatu ezazue zuen bitxitasun zilegia”

duen ikuspegia, ordea, EZ DA GUK ERREFERENTZIA EGITEN DIOGUN HORI, edo ez bakarrik, behintzat. Ezta Intersex Society of North America (ISNA)<sup>9</sup> elkarteak duena ere, edo LGTB<sup>10</sup> mugimenduarena, zeina mintzo baita politika sexualak zapal dutako taldeez, beren gorputzak eta, batez ere, genitalak ez datozelako guztiz bat molde dimorfiko eta dikotomiko maskulino-femeninoekin; nahiz eta bat egin dezakegun haien aldarrikapenekin. Gu ez gara, ordea, genital anbiguoak dituzten pertsonen buruz soilik ari, subjektu sexudun GUZTIEI buruz baizik. Izan ere, intersexualitateaz jardun gaitezke, genitalen buruz hitz egin gabe.

Bestalde, bada guk erreferentzia egiten ez diogun intersexualitate bat, “atzerantz” garamatzana gure ustez, gertaera baten<sup>11</sup> aitortza planteatzen baitu baina, gure ustez, salbuespen egoeratik atera gabe. Alegia, “normala” intersexuala ez izatea balitz bezala, “normalak garenok” gona jaso edo galtzak jaitsiko bagenitu gure genitalak inguruan dugun munduaren igurikapenekin bat ez datozela ikusiko genukeelako. Bestalde, pertsona intersexuei tarte bat emateko irrikan, Fausto-Sterlingek dio ohikoa dela gizabanakoen erabateko maskulinitatea eta feminitatea:

“... erabateko maskulinitateak eta feminitateak gorputz mota posibleen bi muturrak adierazten dituzte. Mutur horiek ohikoena izatearen ondorioz, pentsatu izan da naturalak ez ezik (hau da, jatorri naturala) normalak ere horiek direla (alegia, ideal estatistiko eta sozialaren adierazpena). Aldakortasun biologikoaren ezagutzak, ordea, aukera ematen digu hain ohikoak ez diren tarteko espazioak ere naturaltzat kontzeptualizatzeko, nahiz eta estatistikoki ezohikoak izan.” (Fausto-Sterling, Anne. *Cuerpos Sexuados*. Melusina argitaletxea. 2006. 100. or.).

Sexologiaren arabera, sexua ez dago genitaletan soilik; goitik behera betetzen gaitu sexuak, eta sexu ezaugarri guztietan dago intersexualitatea. Bestalde, aipatutako egileak adierazpen ohikoena deritzon hori (erabateko

maskulinitatea eta erabateko feminitatea) ez da aintzat hartu ere egiten sexualitatean; alegia, esan dugun moduan, ez legoke ez maskulinitate hutsik ez feminitate hutsik. INTERSEXUALAK GUZTIOK GARA, GURE GENITALAZ APARTE.

Efigenio Amezúa dioenez, sexologian, honetan datza gako intersexuala: “... normalen eta anormalen arteko zatiketaren jokoari ihes egitea. Intersexualitatea araua da; ez salbuespena. Horrek ikusarazten digu sexuak ez direla bereziak, baizik eta elementu komun eta partekatuek osatutako batasun bat” (Amezúa, Efigenio. *Sexologemas* [Cuando los genitales no dejan ver el sexo]. Revista española de sexología. 135.-136. zk. Berezia, bikoitza. 2006. 46. or.).

### Intersexualitatearen kontzeptua, Mendebaldeko sexologiaren historian

Sexologoen lehenengo belaunaldian<sup>12</sup> sortu zen sexuak ulertzeko modu hori. Zehazki, Magnus Hirschfeld alemaniar sendagile eta sexologoak sortu zuen, XIX. mendearen amaieratik XX. mendearen lehen herenera bitartean “sexu gradazioak” eta “bitarteko sexu egoerak” kontzeptuak planteatu zituenak<sup>13</sup>. Homosexualitatearekiko konpromiso politiko eta zientifiko bizia zuen alemaniar mediku hari buruz zera dio Ángeles Llorca:

“Seguru asko, hark utzitako obra sexologiko idatzia izango da ahaztuena, landu zituen gainerako arloekin alderatuta. Hirschfeldek sexualitatea oinarri biologikoak abiapuntu hartuta azaltzeko egindako ahalegina, giza intersexualitateari buruz eman zuen teoria eta sexu bulkaden adierazpenak marko patologikotik at kokatzeko ahalegina hain gutxitan aipatzen dituzte gaur egungo sexologiako laneetan, bai baitirudi ez zela existitu ere egin, edo haren obrak betiko desagertu zirela 1933ko maiatzaren 10ean Berlingo Operaren plazan erre zituztenean.” (Llorca, Ángeles. *Magnus Hirschfeld y su aportación a la ciencia sexológica*. Revista española de sexología. 81.-82. zk. Berezia, bikoitza. 1997. 5. or.)

Hirschfeldek 1903an adierazi eta Ángeles Llorcak bere egindako hitzen arabera:

*"Ez dago naturatik bereizitako adierazpenik; denek erakusten dituzte gainerako gorputz naturalekiko ezin konta ahala lotura, alde guztietan daude trantsizioak; hala nola, haurraren eta helduaren artean, mutil gaztearen eta neska gaztearen artean, gizonaren eta emakumearen artean (...). Formen dibertsitatea eta desbideratzeen kopurua hain dira ugariak, non huts egin baitu bitarteko gorputz eta adimen estadioak ordena jakin batean kokatzeko ahalegin orok. Ezin ezar daiteke muga ziurrik denetako hermafroditen, pseudo-hermafroditen eta hermafrodita psikikoen artean, itxuraz somatiko hutsak diren formen eta begiraturaz mental hutsak diren formen artean. Hainbeste behaketa zientifikorekin, gero eta gehiago konplikatu da sistema, beti, eta, azkenean, sinplifikatu, funtsean, kasu bakoitza kasu bereizi bat, klase bereizi bat, sexu bereizi bat baita, hainbeste izanik bitarteko estadioak."* (Llorca, Ángeles. *Magnus Hirschfeld y su aportación a la ciencia sexológica*. Revista española de sexología. 81.-82. zk. Berezia, bikoitza. 1997. 78. or.)

Espainiako estatuan, XX. mendearen lehen herenean (Gerra Zibila lehertu arte), Gregorio Marañón madrildar medikuak landu zuen, pixkanaka, sexualitatearen inguruko ezagutza, intersexualitatearen printzipioaren ikuspegitik. Hauxe zioen, hain zuzen ere, 1930eko "Evolución de la sexualidad y los estadios intersexuales" obran:

*"Sexuen bizitza normal eta patologikoaren ezagutza orok ahaztu egiten du egia bat, antzinatik ezaguna eta naturalista nahiz soziologoek behar adinako irrikaz eta eraginkortasunez gogoan izaten ez dutena: alegia, maskulinoa eta femeninoa ez direla elkarri aurrez aurre kontrajarritako bi balio, baizik eta funtzio bakar baten, sexualitatearen, garapeneko hurrenez hurreneko mailak; funtzio hori piztu egiten da bizitzaren erdigunean, haurtzarora*

*eta zahartzarora bitartean –bi horietan lausagoa da–, sexu batetik bestera desberdintasun kuantitatibo eta kronologiko hutsak dituela."*

Gregorio Marañónek ibilbide jakingarria osatu zuen, hark "intersexual" izen generikoaz izendatzen zituen kasuen behaketatik abiatuta –hasieran, ezohikoak, eta, gerora, gertaerei begiratzeko jantzen zituen "betaurrekoen" arabera, gero eta ohikoagoak– jauzi kognitiboa egin zuen arte. Joserra Landa A.J. Garayk dioenez, Marañón egoera intersexualak (anbiguoak, androginok, hermafroditak, pseudo-hermafroditak, etab.) aztertzen hasi zen –paradigma dimorfikotik–, eta azterketa horretatik ondorioztatu zuen aldatu egin behar zuela paradigma, ez azaltzeko soilik haiek–alegia, arraroak–, baizik eta guztiak: arraroak nahiz normalak. Eta horrelaxe iritsi zen intersexualitatera.

Esandakoak esanda, subjektu "normalak" fikzio hutsa direla pentsa daiteke: denak gara, ala inor ez gara. Agian, norberaren bitxitasunak egiten gaitu beste subjektu batzuentzat erakargarri. Hala balitz, arauetatik bereizten gaituen hori ezkutatu orde, gure bitxitasunak landu genitzake, René Char poetak zioen moduan: Garatu ezazue zuen bitxitasun zilegia.

Artikulu honen bidez, hurbilagotik aztertu nahi izan ditugu intersexualitatearen kontzeptu sexologikoa, haren esanahia eta historiaren zertzelada batzuk, eta, ikusi dugunez, nolabaiteko "tradizioa" duen kontzeptua da, eta, gainera, haren arrastoari jarraitzeko moduan gara. Intersexualitatearen kontzeptu sexologikoa berreskuratzeak aukera eman diezaguke gure burua hobeto ulertzeko eta sexuen ñabardurak, desberdintasunak eta subjektu sexudun bakoitzarengan duten konfigurazio espezifikoak azaltzeko. Bestalde, potentzial handiko kontzeptua da, eta lagungarria izango zaigu sexu hezkuntzan aurrera egiteko; izan ere, intersexualitatearen jakitun izatea baliagarri gerta dakiguke dibertsitatea kudeatzeko eta batzuen eta besteen arteko desberdintasunak balio modura aintzat hartzeko. Sexua balioa baita, zalantzarik gabe.

## Oin-oharrak:

<sup>1</sup>Kontua are gehiago konplikatu da, jakina, pentsatzen badugu mutila izanik on dela ez aritzea "nesken" jolas jakinetan. <sup>2</sup>Pertsonaren bizitza osoan luzatzen da, bizitza-ziklo guztietan zehar. Ni izaten jarraituko dut, baina beti naiz izan nintzenaz eta izango naizenaz bestelako Ni bat, etengabeko aldaketan.

<sup>3</sup>Sexu-ezaugarriak sexu baten eta bestearen ezaugarriak dira. 1929an, honako hauek bereizi zituen Havellock Ellisek: primarioak (gonadak), sekundarioak (gorputzaren gemorfologia, ahotsa, psikismoa eta eskeletua).

<sup>4</sup>Askotariko faktoreak dira faktore sexualizazioak, subjektuen sexutzea laguntzen dutenak. Adibidez, maila psikosozialean, elementu sexualizazioa izan daiteke gurasoen mutila edo neska jaiotzean jaiotako haurraren sexuaren arabera izan ditzaketen iguripen eta portaera bereziak. Edo, maila biologikoa, geneen, gonaden, hormonon jardura...

<sup>5</sup>Moldeetara egokitzea kostatzen zaienak –gutxi-asko–, eta beren nortasuna, gorputza, desirak, fantasiak eta abarrak.

<sup>7</sup>"Koherente" diogunean, esan nahi dugu gizonek sexu ezaugarri guztiak maskulinoan sexututa izatea, eta emakumeek, berriaz, guztiak femeninoan sexututa izatea.

<sup>8</sup>Mendebaldeko sexu dimorfismoaren paradigmatikoa "ohikoa baino gehiago", zeinetan emakumeek ezin baitute izan bizarrik, ile gehiegi sudurrean...

<sup>9</sup>Jainkoarren! Genitalak ez!

<sup>10</sup>ISNAri buruz gehiago jakin nahi izanez gero, honako hauek kontsulta daitezke:

1. Chase, Cheryl. *El eje del mal es heterosexual: figuraciones, movimientos y prácticas feministas queer*. 8. atala, 87.-108. or.: "Hermafroditas con actitud: Cartografiando la emergencia del activismo político intersexual de Grupo de trabajo Queer (arg.)". Bilduma: movimiento 8. Traficantes de Sueños.

2. [www.isna.org](http://www.isna.org)

<sup>10</sup>Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen kolektiboaren siglak.

<sup>11</sup>Alegia, beti izan direla genital anbiguoak zizuten pertsonak, eta une historikoaren eta tokiaren arabera gizartean posizio jakin batzuk eman zaizkiela eta, gaur egun, gertaera hori ezkutatzeko ahalegina egiten dela, sexua/generoa sistema dikotomiko bat sendotuz, horrela.

<sup>12</sup>Adibidez, Havelock Ellis, Magnus Hirschfeld eta Iván Bloch, besteak beste, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran sexua ikertu zutenak, eta ikerketaren alorra modu antolatuan finkatu.

<sup>13</sup>1935ean hil zen, erbestean, Alemania naziaren mehatxupean. 1933an, Hitler agintera iritsi zelarik, Sexologia Zientziaren Institutua erre zuten, Hirschfeldek urte batzuk lehenago sortua.

# GALDEIDAZU

## XAKEAK ZER-NOLAKO EKARPENA EGIN DEZAKE IKASLEAREN PROZESUAN?

**G**ai hau apur bat kokatzeko, gogoratu behar dugu 2012an Europako Parlamentuak gomendioa eman zuela xakea eskola-orduko irakasgaia izan zedin, Europatik zetorren “Xakea eskolan” programaren bidez; eta, 2015eko otsailean, xakea irakasgaien artean onartu zuen Espainiako Parlamentuak, Europako Parlamentuari men eginez. Baina baditu gaingitu beharreko oztopo batzuk, eta handienetakoa, hezitzaile espezializatuen falta. Baliatu nahi nuke artikulua horretarako ere; hain zuzen, irakasleak xakean espezializa daitezzen argudioak emateko.

Erreminta pedagogiko gisa xakeak duen balioaz egin diren ikerketek oso emaitza positibok erakutsi dituzte. Horren adibide da Generalitateak bultzatutako ikerketa zientifikoa, Lleidako eta Gironako unibertsitateen eskutik egin dena. Ikerlan horretan, honako hau izan da emaitza garrantzitsua: “Xakea ikasi duten ikasle katalanek emaitzak hobetu egin dituzte oro har, eta errendimendu akademikoa hobetu egin dute matematikan eta irakurketan”. Azken bi arlo horietan dituzte, oro har, gabezia handienak estatuko ikasleek, nazioarteko hezkuntzako PISA txostenaren arabera, eta gabezia hori sumatu dute berriki, Eusko Legebiltzarrean, Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak aurkeztutako txostenen ere, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, nahiz eta



### JON ALVAREZ XAKE-KO MONITORE ESPEZIALIZATUA



atzerakada txikia izan den. Badaude beste ikerketa aipagarri batzuk ere: Treverisen, Alemanian, ikasleek % 16ko hobekuntza izan zuten; Danimarkako Arhusen, berriz, matematikako ordu baten ordean xakeko ordu bat izan zuten 10 hilabetez, eta, hala, ikasleek % 30eko hobekuntza lortu zuten matematikan.

Juan Luis Jauregiberri argentinarra Santa Fe probintziako Hezkuntza Ministerioko eskolako xakeplanaren koordinatzailea da, eta, xakeak elementu matematiko asko dituen, horiek erabiltzen ditu bere eskola-orduetan. Xakeko taula, berez, kartesiar espazio bat dela dio, zeinetan zenbakien eta letren bidez egingo ditugun mugimendu eta jokaldiak azaldu daitezkeen. Gainera, lege geometriko zehatzetan oinarritzen dira piezen mugimenduak eta erasoko eta defentsako lerroak (batzuetan irudipenezkoak dira). Oso egokia da aritmetika praktikatzeko, piezen truke bat egin behar denean, edota puntu batek dituen eraso eta defentsak kalkulatzeko orduan. Era berean, ikasleek matematikaren kontzeptualizazioa hobetzen duten heinean, xakeko abileziak ere hobetu egiten dira.

“Hezkuntzako xakea eta matematikarekiko duen erlazioa” izeneko gaia landu zen Londresko nazioarteko kongresuan. Kongresu hartan, gai honi buruzko doktorego-tesia aurkeztu zuen Joakin Fernandez

Amigok; bikain “cum laude” eman zion Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko epaimahaiak. Xakearen baliabideak Matematikako eskolatan nola erabili jorratu du tesian, hainbat adinetako haurrei egokituta, betiere. Adibidez, Haur Hezkuntzan, taula erraldoi batean, lerro, zutabe eta diagonalen artean mugituko dira haurrak, eta, hala, egitura hori barneratu egingo dute. Lehen Hezkuntzan, gazteluaren mugimendua edo poligonoen aldeak piezen balioekin erlazionatuko dituzte. Eta, Bigarren Hezkuntzan, probabilitatea landuko dute, piezak poltsa batetik ateraz edo xake-sudokuak egingez.

Bestalde, xakea praktikatzeak irakurketa hobetzen nola lagundu dezakeen ikusarazteko, bi azalpen ematen ditu Leontxo Garcia irundarrak, xakean espezializatua den eta xakea eskolan sartzeko aldarrikapen gehien egin dituen kazetariak: “Irakurtzen ari garenean edota xakean jolasten garenean, antzeko gauzak egiten ditugu burmuinaren prozeduraren ikuspegitik: zeinuak ikuskatzen ditugu, batetik letrak eta bestetik kolore, balio eta tamaina ezberdineko piezak; zeinuak elkartzen ditugu, esaldien edo jokaldien konbinazioak egingez; eta ondorioak ateratzen ditugu. Beraz, xakean jolasten diren umeek barneratuta eta automatizatuta izaten dute prozedura hori, eta, hortaz, hobeto irakurtzen dute”. Eta bigarren azalpena errazagoa da: “Ikasle xakelariak irakurketa kontzentratuagoa egiten dutenez, hobea da haien ulermena”. Baina gehiago ere esaten du Jose Antonio Marina pedagogoak, inteligentziaren arloko ikertzaile ospetsu eta Valentziako Unibertsitateko Honoris Causa doktore denak: “Xakeak funtzio betearazleak hobetzen laguntzen du, hau da, arreta, arrazoinamendua edo ulermena hobetzen laguntzen du; eta, hala, zeharkako baliabideak sustatzen ditu, inteligentzia orokorra handituz”. Badirudi, besteak beste, funtzio betearazlean maila gorenekoak diren pertsonak erraztasunak dituztela ezagutzak antolatzeke, zirrarak kudeatzeko, arreta finkatzeko, burmuina aktibatzeke, helburuak finkatzeko eta erabakiak hartzeko.

Carlos Martinez Piqueras psikologo eta irakasleak Hizkuntzako eskolatan xakea baliabide gisa erabiltzeko sistema bat garatu du: xakeko taula batean, hainbat aditz jarriko ditugu; adibidez, iraganekoak eta geroaldikoak; ondoren, bi jokalarietako batek, zaldia erabiliz, zuriak harrapatuko ditu, hots, iraganeko aditzak; eta beltzak, geroaldikoak; hala, piezaren mugimendua aditzekin erlazionatzen da.

Baina zergatik esaten dute adituek xakea bat datorrela egungo irakasteko erarekin? Ziurtatuta dago xakeak era askotako adimenak garatzen dituela —adimen emozionala barne—. Eta, gainera, egungo gizarterako erabilgarrien diren bertuteak lantzeko balio du: arreta, autokritika, irabazi eta galtzearen kudeaketa, zirrara primarioen kontrola, pentsamolde logiko eta ordenatuan erabakiak hartzea, irudimena, eta beste asko. Howard Gardnerrek, hainbat adimenen teoriaran, zortzi adimen bereizi zituen, eta frogatuta dago xakeak horietako bost behintzat lantzen dituela. Lehen biez hitz egin dugu jada, hots, logiko-matematikoaz eta hizkuntzakoaz. Adimen espaziala taulan oraindik egin ez diren jokaldiak aurreikusiz lantzen da. Intrapertsonala, norberaren burua aztertuz, jakiteko zein eratako posiziotan moldatzen den ondo, zeinetan okerrago eta zeintzuk baztertu behar diren akatsik ez egiteko. Adimen interpersonala aurkaria ezagutzuz lantzen da: haren sendotasunak eta ahuleziak zein diren aztertuz, zein posiziotan dabilen egoki ikusiz... Adimen musikala, gorputzarena eta naturalista geratuko lirarteke airean, baina azken horiek ere irakaskuntza-metodologiaren arabera gara litezke. Adibidez, taula eta peoien mugimenduak irudikatuz musika entzuten den bitartean. Xakeak Lehen Hezkuntzako ikasleentzat ingurumen-hezkuntzarako duen balioari buruz, ikerketak egiten ari dira Kati Pantoja Montero eta Oleg Reyner, Santiagoko (Kuba) kultura fisikoaren fakultatean.

Estatuan hainbat adimenen alorrean aditu handienetako bat dugu Montserrat del Pozo, 30 urteko ibilbidea duen pedagogo, lekaimea

Ziurtatuta dago xakeak era askotako adimenak garatzen dituela —adimen emozionala barne—. Eta gainera, egungo gizarterako erabilgarrien diren bertuteak lantzeko balio du: arreta, autokritika, irabazi eta galtzearen kudeaketa, zirrara primarioen kontrola, pentsamolde logiko eta ordenatuan erabakiak hartzea, irudimena...

eta Montserrat eskolaren zuzendaria. Haren hitzetan, xakeak burmuinaren bi aldeak lantzen ditu, eta zirraren kudeatzaile egokia da. Guztiok adimen mota horiek ditugula dio, baina, inguruaren eta sentimenduen arabera, batzuk besteak baino hobeto menderatzen ditugula. Hala ere, del Pozok dioenez, umeak 12 urte dituen haren sendotasunak zein diren jakitea litzateke egokiena. Haren ikastetxean, bi urteekin hasten dira adimen zientifikoa garatzen: metodo zientifikoan, galdera bat egiten da, hipotesia planteatzen da, behaketa egiten da, eta ondorio batzuetara iristen dira. Bizitzan egiten dugun edozertarako balioko liguke metodo horrek. Baina, harentzat, hezkuntza berritzailearen ardatz nagusia adimen intrapertsonala da: banakoa hezkuntzaren muinean jarri behar da, eta ikasleak bere hezkuntzaren protagonista sentitu behar du, arazoak gainditzeko baliabidez hornituz eta akatsak pertsona hobetzeko erabiliz.

Hezkuntza-itunaren alde agertzen da, “oinarrizkoa delako gobernu-aldaketek hezkuntza-ereduak ez aldatzea”; “hezkuntza-ereduak adituen eskuetan behar du, hezkuntzako proiektuaren helburuak gizakia eta gizakiaren hazkundera direlako”; eta helburu nagusia “banakakoa librea izatea da”. Askatasun handiena adimenerako eskubidea da, pertsonaren pentsamolde kritikoa eta sortzailea

bultzatuz, hark erabaki dezan nola borrokatu nahi duen, nola aldatu nahi duen mundua, edo nola bizi nahi duen... Azken finean, nola izan nahi duen zoriontsu.

“Ikasteko erarik onena gozamen handiz egitea da, denbora pasatzen ari dela ohar ez zaitezen”. Albert Einsteinek 11 urteko semeari eginiko esaldiak balio digu egungo hezkuntza-metodo berrienetarako ere. Erabat ondo dator “jolastu, pentsatu, hezi” hirukotea xakearekin. Miamin egindako “Lehen Hezkuntzarako ageriko pentsamendua” kongresuan, hirukote horren inguruan gaur egun gehien dakiten aditu garrantzitsuenetarikoz batzuk bildu ziren: David Perkins, Arthur Costa, edo Robert Swartz, adibidez. Hezteko eta irakasteko era horren ardatz nagusiak pentsamolde kritikoa, pentsamenduaren ohiturak eta trebeziak dira, eta “pentsatzen ikastea” oinarritzen dira. Umeez erremintak hartu behar dituzte, aldeztatik eginiko galderetan oinarrituta, erabakiak trebetasunez gauzatzeko, baita erabaki txikiak ere. Xakearen bitartez ikasitakoa eguneroko bizitzara eramatea da helburua. Txikitatik solasaren bitartez nahiz abestien, ipuinen edo jokoen bidez prozesu hori barneratu duten haurrek automatizatu egiten dute prozedura, dibertituz, nagusiok adibidez autoa gidatzen dugunean bezala; eta, horrela, sendo pentsatzen ikasten dute.

Aurreko adituekin batera, Adriana Salazar kolonbiarra aipatu nahi nuke. Hizkuntzan eta literaturan lizentziaduna da, xakeko nazioarteko maisua, eta hezkuntzako xakean mundu-mailan aditu nagusietakoa. Aurreko udan, 2015ean, Bilbon egin zen ICOT kongresuan izan zen (agian, munduan pentsamenduaren inguruan egin den kongresu garrantzitsuenen). Salazarrek xakean oinarritutako hezkuntza-sistema propioa eratu du. Dagoeneko Mexikoko eta Espainiako 70 ikastetxe bako gehiagok erabiltzen dute, aurretik aipatu dugun Montserrat ikastetxe ospetsuak, adibidez. Kongresu horietan guztietan, xakea barneratzeko arrazoi nagusia hauxe da: bat dator irakasteko era berrienekin. Salazarren sisteman,

3-5 urteko ikasle guztiek ezagutzen dute xakea, biolina jotzen dute, eta taekwondoa praktikatzen dute; eta ez dira aparteko talentudun ikasleak. “Egiten dugun guztia pentsatzen irakastea oinarritzen da. Musika eta taekwondoa ere horretarako erabil daitezke. Umeen pentsamoldea garatzeko lan egiten dugu beti, musikasentsibiltate lantzean edo kirola egiten denean burmuina garatzen baita”, dio. Baina nola irakatsi xakea hiru urteko umeei? “Ezberdinak dira eskola guztiak, eta era ezberdinean azaltzen dira; baina ondo zehaztutako hiru helburu ditugu: lehenengoa, xakearen alde teknikoari dagokiona, piezak nola mugitu, adibidez; bigarrena, pentsaeraren garapena, aldeztatik jakitea buruko zer trebezia landuko den, kalkulua, bisualizazioa...; eta azkenekoa, giza abileziak eta balioak lantzea, besteen ikuspegiaren errespetua zabalduz edo ikasketa kooperatiboa bultzatuz”. Funtsezkoa da umeei txikitatik irakastea irabaztearen eta galtzearen garrantzia, eta azken horrek sortzen dituen frustrazioak bideratzeko tresnak ematea, arnasketa edo bisualizazioak erabiliz.

#### Adinez adin, nola irakatsi?

Txikitik, bi edo hiru urterekin, xakea irakasteko taula erraldoi bat erabiltzen dugu, eta gorputzarekin egiten dituzte lehen mugimenduak lerroan, zutabeen edo diagonalean mugituz, lauoinka ibiliz edo “robotarena” eginez. Hori barneratuta dutenean, bestea erraz ulertuko dute, piezen mugimenduak orokorrean aipatu ditugun lerro, diagonal edo zutabeetan zehar egiten direlako. Gero, peoiaren mugimendua irakasten da, eta, pieza horren alde teknikoa ikasten dutenean eta harrapaketa ezagutzean, baliabide eta aukera ikaragarriak sortzen dira, kalkulurako eta bisualizaziorako trebeziak lantzeko. Txikitatik buruan gauzak imajinatzea eta ikuskatzea oso erreminta indartsua da, matematikara edo hizkuntzetara estrapolatzen badugu.

Egungo irakaskuntza-metodologiaren eta zuk izan zenuenaren artean, zer ezberdintasun dago? Garai haiketako ortodoxoagoa zen,

estatikoagoa; ez zuen pentsamendu sortzailea horrenbeste gauzaten; gehiago oinarritzen zen pentsamolde logikoan, eta, pentsaera horretan sartzen ez bazinen, eskolatik kanpo zeunden. Egun, askoz aukera gehiago ematen dira; ume guztiek ezberdin ikasten dute; ezberdinak dira, eta ezberdin pentsatzen dute; horregatik, askotariko adimenetan oinarritzen gara; errespetua diogu gelan dagoen dibertsitateari, eta ez dugu ez gelan, ez xakean, denak berdinak direnik pentsatzen. Adimen linguistikoa, zinetiko-korporala eta logiko-matematikoa irakatsi behar dizkiegu, eta gure eskolak guztien zerbitzura jarri behar ditugu.

Euskal Herrian, jada badago xakea irakasgai gisa erabiltzen duen ikastetxerik. Joan den irailean, Begoñazpi ikastola izan da aitzindari, 2015-2016 ikasturtean xakea sartu baitu eskola-orduetan. Lehen aipatu dugunez, gure erronka nagusia xakea irakatsiko duten irakasleak prestatzea da orain, eta ikastetxeei laguntza ematea. Horretarako sortu genuen xakea euskaraz 2.0 plataforma ([www.xakea.org](http://www.xakea.org)) Hurko Mendigurenek eta biok. Xakeak euskaraz eta era askean zabalkundea izan dezan nahi dugu. Egun, Lauaxeta ikastolarekin ari gara elkarlanean, proiektuaren beharrak eta norabideak ikuskatzen. Batxilergoan xakea txertatu dute eta ikasleak eurak dira elkarlanean xakea ikasten dutenak.

Xakeak norbere burmuinaren jabe egiten eta berau erabiltzen lagun dezake. Niri bizitza aldatu dit eta aurrez neronek probatu gabeko ezer ez nioke inori gomendatuko. Dena den, ni derrigortasunaren aurka nago, ez dudalako uste gauzak derrigortuta ikasi edo irakatsi behar direnik.


Artikulu honetan azaldutakoak konplexua dirudien arren, ez da beldurrik izan behar xakea irakasteko orduan, xakeko Lehen Hezkuntzako liburuak sinpleak eta oso ulerterrazak baitira. Gainera, gai konplexuetarako monitore espezializatuak daude. Bizitzen ari garen gizartearen tesuingurua erronka pertsonal berriekin hasteko garai ezin hobea da, eta zuek, hezitzaileok, zarete gizartearen aldaketarako gure baliorik handiena!

# ARGITALPENAK



## MARIMUTILA NAIZ, ETA ZER?

Ana Jaka - Patxi Gallego



## ROS

Miren Agur Meabe - Estibaliz Jálón



## TROPEZISTA

Jorge Gonzalo - Elena Odriozola

### ELKAR

Ioneri marimutila deitu diote eskolan. Futbolean jokatzeko duelako, ile motza daramalako... Berari bost axola: gustatzen zaizkion gauzak gustatzen zaizkio, eta kitto. Izeba Naiararen ezkontzarako, ordea, arazo bat sortuko da, gurasoek soineko bat jantzarazi nahi baitiote Ioneri...

### EREIN

Garik sei urte ditu, eta haurtxo bat balitz bezala maite eta zaintzen du Ros astakumea. Eta zergatik hori? Berek amak baztertu duenetik Rosek uste duelako... Gari dela bere ama! Liburuan oso modu xumean, premia goiztiarren berri ematen da: elikadura, higiena, jolasa, afektibitatea...

### DENONARTEAN

Maitasunari buruzko liburua da honakoa, edo album-illustratua, hobeto esanda. Bi helduren arteko maitasun istorioa kontatzen du, baina maitasunak adinik ez duenez, denei zuzenduriko lana da, bereziki haurrei. 2013ko Euskadi Saria jaso zuen ilustrazioaren atalean.



## AINGERU GALDUAREN BILA

Max Ducos / Itzulpena: Maritxu Riviere



## TXIMELETA BELARRIAK

Luisa Aguilar - Andre Neves



## KORTSARIOEN OSTATVA

Dani Fano - Guillermo Gonzalez

### IKAS

Ameslari samarra da Eloi, beti ikastaldeko azkena, eta gogoz kontra doa irakasleak antolatutako herriko arte ederretako museora. Galdu egingo da bertan, eta abentura fantastiko batean murgiltzen da obra batzuetan barna. Arte ederretara hurbilarazteko gutizia ematen duen albuma.

### KALANDRAKA ETA PAMIELA

Maddi neska berezia da, eta ez ezerk ez inork ez du lortuko haren ezaugarriak balioa kentzerik, amak gakoa eman baitio edozein kritikaren aurrean airoso ateratzeko: autoestimua, irudimena eta naturaltasuna izatea. Maddik ikasi du isekarako arrazoi izan daitekeenari beste begi batzuekin begiratzen.

### IKASTOLEN ELKARTEA

Kortsarioen ostatuan biltzen diren gizon-andereek ez dute bizimodu lasaia izan. Ezta arrunta ere. Itsaso zabalean auskalo zer ez duten ikusi, zer ez duten pairatu. Izan ere, kortsoa bizimodua da. Ez eroso. Hil ala bizikoa. Maiz gertatu bezala, kortsario izatea ez da lehen aukera, bakarra baizik.

# PROPOSAMENA

## ‘AMOUR’ IKUSKIZUNA

Haurren antzerkia helduentzat,  
helduen antzerkia haurrentzat

lazko abenduan estreinatu zenetik, sariak pilatzen ari da Marie de Jongh konpainiaren ‘Amour’ ikuskizuna. Familia osoari zuzentzen zaio, haurrentzat nahiz helduentzat baita, eta, izenaren jabe, maitasuna eta horren adierazpideak ditu ardatz. Konpainiaren esanetan, aurreiritziak zokoratzeko eta desberdinen artean elkar ulertzeko deia egin nahi dute ikuskizunaren bidez.

**H**aurrentzat baliagarria den helduen antzerkia izan daiteke, edo helduei zuzenduriko haur-antzerkia. Baldintzarik gabeko maitasunaren inguruko ikuskizuna da, edo desatxikitzearen ingurukoa. Sarri kontrajarriak diren bi uren artean dabil etengabe igeri Amour ikuskizuna, eta, agian, horixe da haren xarmaren nahiz arrakastaren gakoetako bat. Izan ere, abenduan aurkeztu zutenetik, hilabete bakoitzeko sari bat jaso du Arriaga Antzokiak eta Marie de Jongh konpainiak elkar-



lanean aurkezturiko ikuskizunak: FETEN 2016ko ikuskizunik onenaren saria eta euskal produkzioerik onenaren Ercilla 2015 saria jaso ditu; gainera, gomendatutako ikuskizun izendatu du Espainiako Antzerki Sareak (RED).

### **Txanponaren bi aldeak**

Izenaren jabe, ikuskizunaren ardatza maitasuna da, eta txanpon beraren beste aldea desatxikitzea da. Lau umerekin hasten da istorioa, bi neskatorekin eta bi mutikorekin. Jola-

sean agertzen zaizkigu ume horiek, “dena hastear dagoen herrialdean. Mundua aurkitzen ari dira, beren unibertsoa itxuraldatuz. Nagusiak imitatzen dituzte, ausart eta ozarki. Maitatzeko gai direla sinetsita daude, maitasunaren sakonera arrotza zaien arren. Ez dute etsaitzeko erreparorik, euren patriketan gorroto hitza oraindik topatuta ez badute ere”. Izan ere, bi neskatilen arteko harremanak amodiotik amorrura egingo du jauzi.

Eta, bat-batean, hirurogei urtetik gora igaro dira, eta zaharturik ageri





zaizkigu pertsonaia horiek berak. Dagoeneko aurkitu dute mundua, eta ezagutu dute maitasun hitzaren sako-neko esanahia; baina, hala ere, ezin dute aspaldiko etsaia berriro lagun bihurtu. Azkenean, ordea, maitasunak beste aukera bat ematen duela ohar-tuko dira.

Ikuskizunaren bidez, baldintzarik gabeko maitasunaren eta desatxikitzearen arteko muga lausoari buruzko hausnarketa egiten du Marie de Jongh konpainiak. Horrekin batera, desberdinen artean elkar ulertzeko eta aurreiritziak gainditzeko deia egin nahi dute ikuskizunaren bidez.

Konpainiako kideen esanetan, Amour “erronka handia da: balioa eman nahi dio umeek eta nagusiek elkarrekin goza dezaketen antzerkiari; zirrarak, hausnarketak, zalantzak eta ziurtasunak partekatzeke lekua izan dadin. Helduen antzerkia ume-entzat, eta umeen antzerkia helduen-tzat”.


### Hitzen faltan, adierazpena

Hitzik gabe hitz egiten dute Amour antzezlaneko pertsonaiek, Marie de Jongh konpainiaren ikuskizunetan ohikoa den moduan. Eta aurpegia ere estalita dute aktoreek, maskarak

erabiltzen baitituzte. Hitzik eta aurpe-girik gabe, gorputzaren adierazkorta-sunak hartzen du protagonismoa obra honetan, Ana Meabe, Anduriña Zurutuza, Javier Renobales, Ana Martinez eta Pablo Ibarluzea aktoreen eskutik. Horretaz gain, eszenografia mugiko-rra da, eta musikak ere indar berezia hartzen du ikuskizunean, adierazpe-nerako gako gisa. Pascal Gaigneren musikan oinarritzen da, hain zuzen, Amour.

Jokin Oregi antzerki-zuzendaria eta Elisa Sanz zuzendari artistikoa aritu dira horri guztiari forma ematen. Oregik hainbat euskal konpainiarekin egin du lan, eta sari ugari jaso ditu bere ibilbidean zehar, besteak beste, Gorakada konpainiarekin. 2008an, Ana Meaberekin batera sortu zuen Marie de Jongh konpainia, familia osoari zuzenduriko antzerkigintza-ren bidea urratzeko, eta ibilbide hori ere oparoa ari da izaten, hainbat sari tarteko.

Bestalde, Oregik euskarazko hainbat antzerki-lan idatzi ditu, bes-teak beste, Larria, kutsakorra, mende-baldekoa Tartean konpainiarentzat, Patxo Telleriarekin elkarlanean, eta antzerkigile onenaren MAX saria jaso zuen lan horregatik.



‘AMOUR’

### ZER:

7 urtetik gorako haurrentzako eta hel-duentzako ikuskizuna. Familia osoari zuzenduriko lana.

### GAIA:

Maitasuna. Baldintzarik gabeko maitasunaren eta desatxikitzearen arteko muga lausoa. Desberdinen arteko maitasuna, eta aurreiritzien gainditzea.

### LANTALDEA:

Jokin Oregi (zuzendaria); Elisa Sanz (zuzendari artistikoa); Ana Meabe, Anduriña Zurutuza, Javier Renobales, Ana Martinez eta Pablo Ibarluzea (aktoreak); Pascal Gaigne (musika); eta Xabier Lozano (argiztapena).

### Hurrengo emanaldiak:

Ikus [www.mariedejongh.com](http://www.mariedejongh.com) helbidean.

# ATZEKO ATETIK



## ASKOTARIKO ESKOLAK

ELENA LAKA TOPAGUNEKO LEHENDAKARIA

**G**enero eta klase sozial desberdinak berdin hezteko asmoduna, eta euskalduna, horrelakoa zen ezagutu nuen lehen hezkuntza-sistema. Gaur egun ohikoa eman arren, 1970ean ikastola eredu bitxikeria eta ausarkeria zen, Eibarko gure langile auzoan bat ere ulertzen ez zen aukera. Baina aitak, militante eta temati, hautua egin zuen, amaren konfiantzarekin. Auzokideak eskola nazionaletan edo moja-fraileetan hezi ziren, gazteleraz, neska-mutikoak banatuta. Baliabide eta jakintza profesionala baino, militantzia eta gogoia zuen ikastola hura izan zen gure lehen hezkuntza-sistema. Berrogei neska-mutiko etxebehe bateko gela txikian, egun guztia kantuan, marrazkitan eta jolasean, gogoratzen dudanez. Ikastolaren bilakaera ezagutu genuen: apaletik oparora, etxebeheko gela solteetatik eraikin handira. Baliabideak ugaritzen joan ziren, profesionaltasuna gehitzen. Sistema euskalduna eta berdintzailea izateari ez dut uste utzi zionik. Batez ere inguruko moja-fraile eta eskola nazionalen aldean.

Hamar urte beranduago, Espainiako hezkuntza publikoan murgildu nintzen batxilergoa egitera. Hemendik begiratuta, ez dut hainbesteko jauzia gogoratzen, hizkuntzan ez bada, gutxi igarri nuena euskaldunok berrezko dugun elebitasunari, eta eredu

euskaldunak gazteleraz eman zigun formazio sendoari esker. Gehienbat Espainiatik etorritako irakasle gazte *progreak* geneuzkan, gauzak egiteko gogoz baina sistemaren hertsitasunarekin talka egiten zutenak.

Hirugarren hezkuntza-sistema guraso moduan ezagutu dut, gure semeak herriko ikastolan hasi zirenean. Horrenbeste urte hezkuntza-sistematik kanpo, erabat eredu berria niretzat. Ikastola euskalduna eta berdintzailea, ikaslearekin inplikaturik, eredu zahar eta berrien jakitun, esperientziaduna, baliabideduna. Eta guraso moduan bizi izan dut baita ere eredu talka, eskola sistemen arteko gatazka herrian, non morroiren batek oraindik agurra ukatzen didan sistema publikoari ikastolarentzako baliabideak eskatu genizkiolako.

Hiru, hobeto esanda, lau, sistema ezagutu ditut hezkuntzan: hasierako ikastola, ikastolaren garapena, Espainiako hezkuntza publikoa, eta guraso moduan, ikastola kontzertatu egonkortua. Guztiak desberdinak, baina ez behar bada errotikako desberdintasundunak. Geratu zaidan hondarra, hala ere, ez da sistema bat edo bestearen nolakotasuna. Nigan urratsa utzi duena ez da hainbeste halako irakaskuntza modua, baizik eta sistema bakoitzean, ikasle zein guraso moduan, horrelako edo halako irakaslea. Giza-baliabidez diharduen

sistema batean, gizakiaren ezaugarriek baldintzatzen baitute sistema, eta hezkuntza-sistema, batez ere, irakasle-ereduak dira. Irakasle txarrez eta erdipurdikoez ahaztu naiz. Baina kuttun gordetzen ditut irakasle onak, izan dira eskukadatxo bat. Euren lan hutsaz harago, azterketak gainditzeko irakasteaz harago, ikaslea eta irakasgaia maite zutenak, lana gustuko zutenak. Kuriositatea piztu ziguten, pasioa transmititu, astindu intelektuala eman, ikasteko eta ekiteko gogoia, eta bizitzaren aurrean iritzi kritiko bat osatzen lagundu. Modu berean bizi izan ditut neure semeenak: klase emale hutsak ahaztu, eta irakaskuntzan inplikatuak oroitu.

Hezkuntza-sistema ororen misioa izan beharko litzatekeelako irakasle onak formatzea, ikaslearekin ikasteko gertu egongo direnak, gizartean eragiteko gogoia zabalduko dutenak, irakatsi beharrekoa ikasgelako hormetatik harantzago eramango dutenak, pentsatzen erakusteko bidea emango diotenak. Nekez eraikiko baitugu sistema ganorazkoa irakasleek beraien lanbidea karreraren erraztasunagatik, oporren luzeerarengatik aukeratzen badute, eta ez pertsonak eraikitzekeo grinak bultzatuta, etengabe ikasten ibiltzeko gogoak eraginda. Horretarako baliabiderik jartzen ez bada, sistemarik onenak ere, kale.

# #Zubideiak

Gune Irekia / Foro abierto

UPV/EHU- Leioa. Mai 7 mayo, 09:30-18:00

Habrá interpretes: euskara, castellano, francés...

¿Qué oportunidades ofrece  
el euskara a la hora de  
relacionarnos?

¿Cómo avanzar?

Zatoz! join us! haide! jven! kom op! давай! 来吧! gyerünk! Come on! kuja juu!  
haydê! давай! मा आउन! dai! 上に来て! haere mai i runga i! dod ymlaen! allez!



INFO+

[zubideiak@gmail.com](mailto:zubideiak@gmail.com)

674345756

@Zubideiak

Babesleak  
Patrocinadores



emana la zabal zazu  
Universidad  
del País Vasco Euskal Herriko  
Unibertsitatea

LABORAL  
kutxa



## Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak

Ekainaren 28an, 29an eta 30ean LEIOAN  
Uztailaren 4an, 5ean eta 6an DONOSTIAN



Adimen anitzak eta autoestimua - Irakaslearen komunikatzeko estiloa -  
Pedagogia Sistemikoa ikasgelan - Eskola libre eta demokratikoak -  
Laguntza inklusiboa eskoletan - Mindfulness (arreta osoa) eta... - Heziberri  
2020 programan Zientziarako konpetentzia - Entrenamendu Mentala -  
Konpetentzien ebaluazioa BHn - Haurren autoestimua - Nola saihestu  
gatazkak - Psikomotrizitate praktika - Gorputzetik hezi eta bizi - Dalcroze  
erritmika - Nerabeekiko lana irakaskuntzan - Dramatizazioa eta Antzerkia  
hezkuntzan - Motibatu nahi? - Ipuinak kontatzen irudi-liburuak lagun -  
Plastika - Haurrentzako masajea - Espresio tailerra - Artea - Yoga eta  
Kontzentrazio Teknikak eskolan - Musika Haur Hezkuntzan - Otsoaren  
ahoaan barrena! - Koplagingtza Haur Hezkuntzan - Gure imaginarioa  
kantagintzaren bidez - Euskal mitologia.

Informazioa eta izena ematea [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) helbidean